

Goi

Goierritarra aldizkaria

369. zenbakia

2009ko urriak 23

GOIERRIKO

hitza



Gehigarri berezia



G+ h ^{hogei} _{ta} ^{bost}

BiZi GOiERRi!



VIAJES
ABIO

BIDAIK
1999 2009

**BADATOR
ELURRA**
131€-tik
hasita

Kale Nagusia, 38
T 943 80 53 11
abio@abio.es



eta gainera
%7^{ko}
BEHERAPENA
Visa Viajes Iberia
bartzel berriarekin
ordainduz gero

efaktore

berogas

langile elkarte, s.a.l.

Berokuntza, gasa, aire girotua, iturgintza.
 Instalazio industrialak eta etxeak, eguzki-energia.
 Sukaldeko eta bainuko altzariak, etxetresna elektrikoak.
 Aluminiozko eta Poliuretanozko leihoak .

Denda: Pº San Francisco, 10 – 20400 Tolosa
 Tel.: 943 653 307
 Tel. / Fax: 943 650 520
 E-mail: muebles@berogas.com

Bulegoak: Polg. Usabal, pab. 11A – 20400 Tolosa
 Tels.: 943 672 620 / 943 675 977
 Fax: 943 675 421
 E-mail: berogas@berogas.com

www.berogas.com



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:
I. Fdez Ornaburu Dra.
 (Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA


ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitita, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal
ZENTRO MEDIKUA
www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea
BEASAIN



R.P.S.:32/04



Goierritarra eta Hitza egiten duten kazetari, kudeatzaile, banatzaile, publizista taldea. Erkuden Muguruza eta bainbat banatzaile falta dira argazkian.

GOIERRIKO **hitza** 



HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierriko Hedabideak S.L:

Urbialde plaza, 7 - behea

BEASAIN

Telefonoak:

Erredakzioa: 943 16 00 56

Faxa: 943 88 96 12

Publizitatea: 647 319 757

Harpidetzak: 902 820 201

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Mila esker

Lehenik eta behin, Goierritarra aldizkaria eta Goierriko Hitza egiten dugunon izenean, eskerrak eman nahi dizkizugu. Irakurlerik gabe, iragarlerik gabe, babeslerik gabe, kolaboratzailelerik gabe, ez bailitzateke posible izango 20 eta 5 urtetan, euskarazko proiektu batek aurrera egitea. Mila esker, hamabostero eta egunero etxeko sukalderraino sartzen uzten gaituzuelako.

Urte hauetan guztietan, sasi guztien gainetik eta laino guztien azpitik, oztopoz oztopo aurrera egin du Goierriko euskal prentsak, zu irakurle, zu iragarle, hortxe izan zaitugulako.

Garai berrietara egokitzen jakin izan dute Goierritarra aldizkariak eta Goierriko Hitzak, beti ere, euskararen normalizazio bidean beraien aletxo jarritz. Aurrera begira ere, garai berrietara egokitzen jarraituko dute Goierritarrak eta Hitzak, gutxienez, beste hainbeste urtean, goierritarrei euskarazko informazioa emanez.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

Ze ez al du nahikoa lan ematen
euskara hutsean eta baldintza
desegokietan jardun behar izateak!



Bildu, berotu eta poztu Ba zen garaia, bazenez horratio!

Joan zen udan eta neguan sartzeko preparatiboetan hasi gara. Uda partean lanari horzka ekin genion txingurrien gisan proiektu honen etorkizunean sinistuta geunden lau txorook, gauzen egoeraren hoztasunaz mintzatzen zitzaizkigun ezko- rrei kasu handiegirik egin gabe (ez genekien ze enbajadatan sartzen ginen!), eta bai ordea konplize bilakatu zaizkigunen animoei esker, eskuartean, edo buru-kaskoan hobe esanda, genuena azalduz, makina bat aldiz bilduz eta azkenean proiektu eta manifestu bat argitara emanez.

Eta laburtzeko, “Bagara, ez gara edo zer gara?”-ren tanke- rako galdera-salaketa bota genuenetik askotxo aurreratu dela esan behar da. Izan dira mila oztopo, burokrazia eta burugabe- keria; hamaika itxarote, ezuste eta esne-txar; ez bi eta hiru fede- txar, zalantza eta ezintasun. Aldi berean izan da jende sutsurik eta lagundu gaituenik. Ez gaude ahaztuta.

Hainbat eta hainbat horrelako izango ditugu, halabeharrez- koa dela dirudi, are gehiago hemen, mendian, Goierri- n, eraturi- ko ezer ez dagoenean (eta hala balitz, etorri dadila “badago” esango duena, borondatea eta edozernolako azpiegitura badela esango diguna, gustora hartuko genuke eta. Esate baterako, oraindik ez zaizkigu eskaini eskatutako bitarteko eta baliapide- ak, Udalerri guztiek ez dizkigute agindu beren dirulaguntzak, zerbitzu publiko gisako izateko bokazioarekin sortzen garela jakina izan arren).

Baina txarrena pasa da, lehen pausuak emanak ditugu eta non sartua badugu behintzat eta gaitzerdi. Bertako euskaldu- nok batuko gintuen organu eta kultur tresnarik ez genuen, beste zenbait eskualdeek berea badutenean, eta arrakastatsua kasu askotan, bertako hitzun, irakurle eta arlo ugaritako jende- aren potentziala kontsideragarria denean. Azkenik hemen gara, edozeinen aurrean bizirik, tente eta itxuroso ahal bada jarraitze- ko goioarekin azaltzeko esperantzan.

“Bildu, berotu eta poztu” izan liteke gure lema, orain, бага- renean.

Goierritarra hilabetekaria izango da hasiera batean, zabala eta pluralista edozeren gainetik. Honen atzetik gabiltzanok ez dugu heluru politiko inmediatek. Alderdikeria begibistakoek ez dute izango lekurik hemen, argi eta garbi esanda, ez ditugu sakabanatu behar indarrak. Hutsune bat bete nahi dugu, espa- zio bat aurkitu eskualdearekin eta goierritarrekin zerikusi duten berri, gertakari eta beste geureganatuz, eragin sozio-kultura sortuz eta Goierriko gauzak “Beterri”etara eramanez.

Ze ez al du nahikoa lan ematen euskara hutsean eta baldin- tza desegokietan jardun behar izateak! Goierriko panorama oro- kor eskasari erreparatuz gero baietz esango genuke. A ze asta- keriak ikusteko gauden oraindik hortik baino seguruago hemen- dik! Horiei frenua jartzen ikasi beharrean gaudelakoan, gure medio apurrekin saiatuko gara horretan.

Erdara seguruago dabil parte honetatik eta hortxe gure hel- burua, anagraman ikus daitekeen legez: gure ‘goierritar-txoa’ patxadaz baina badatorkigun erdal uholdeari eutsiz ibiliko da, bailadako jendearen izaera eta balioek ematen duten konfidan- tzarekin eta parajeon eta parajeotakoon sona eta karisma ohi eta faltsuak sortzen duen inpotentziarekin. Ea aldizkariaren ira- kurle, kolaboratzaile eta interesdun andana osatzen joaten garan. Zuekin egon nahi genuke gehienean ere edozertarako.

Segidako orriotan ikusiko duena lehen saiotzat jo behar du honen irakurleak, horrela atera zaigu, ez du derrigorrez horrela- koa izan behar, denborak esango digu geuri ere zeri eman, zer neurritan, nora egin behar dugun, e. a. Non edo hara izan dadi- la behinepein eta gera bedi hau dagoen horretan, horretan gau- den bitartean.

Goierritarrak
(0 zenbakian argitaratutako aurkezpena)



EZKIO ITSASOKO UDALA

Tel.: 943 72 13 03

Hitzaren eta Goierritarraren alde!

BIP

Beasaingo Ikastetxe Publikoak



Alkartasuna LHI eta Alkartasuna BHI



Murumendi LHI



Loinazpe BHI



Txindoki-Alkartasuna BHI

Zorionak eta urte askotarako

Hutsunea handia zen, herrietako berriak,
 espainiera hutsez eta espainierazko egunkari
 handietan soilik argitaratzen ziren garai hartan



Andoni Sarriegi Eskisabel

Goierritarraren sorrera

GOIERRITARRA aldizkariaren 0-1 alea, 1989ko azaroan argitaratu zen. Herri-aldizkariaren lehen ideia, oker ez banago, Arrasaten sortu zela uste dut AED-ren ekimenetik eta Arrasate Press aldizkaria argitaratzen hasi ziren. Harrituta gelditu naiz, GOIERRITARRA aldizkariaren lehen alea Arrasate Pressena baino hilabete lehenagokoa izan zela jakitean. Dena dela, garai hura, euskarazko hedabideen zabalkuntza handi baten hasiera markatu zuena izan zen. Irratigintzan, adibidez, bazen mugimendu bat "irradi libre" deituak han eta hemen sortzekoa, eskualdeka eta baliabideen arabera lurralde-esparru jakinetan eratzekoa. Ildo horretakoa genuen Goierriin Arlote Irratia. Ekimen handia, baliabide gutxi, etab. Baina 1989an, idatzizko hedabide euskaldunen kezka izugarriari erantzuna emateko modu bat asmatu zen eta herri eta eskualdeetako informazioaren bideari heldu zitzaion. Arrasateko AED-ren lorpena, Arrasate Press argitaratzea adinakoa, argitalpen hartan Arrasateko Udala, herriko erakunde nagusia, laguntzaile baino areago, hitzarmen bidez erantzule edo bere neurriko arduradun bihurtzea izan zen eta erantzukizun horrek gaurdaino iraun du.

Goierriin ez zen hala gertatu. Hasteko udal bat ez baizik eta hemeretzi zirelako, handiak, ertainak eta txikiak, ideia eta joera desberdinetakoak, oso euskaldunak eta erdipurdikoak. Hori lehen alean bertan nabarmentzen da editorialean honako hau dioenean: *"Udalerri guztiek ez dizkigute agindu beren dirulaguntzak, zerbitzu publiko gisako izateko bokazioarekin sortzen garela jakin izan arren"*.

Hala eta guztiz ere aipatu beharra dago, Ordiziako Udalak lehen unean bertan eman ziola egoitza GOIERRITARRA aldizkariari herri-zerbitzuak zeuzkan Dorre etxean eta proposatutako diru-laguntzen ildoan ere berehala sartu zela beste udal batzuekin batera.

Kontua da GOIERRITARRA aldizkariak bere lehen alea 1989ko azaroan argitaratu zuela, 150 pta.ko prezioarekin eta 1.000 aleko tiradarekin eta horretarako Goierritarrak Kultur Elkartea eratu zela alde zurretik sustatzaile nagusien eta albora inguratutako batzuen artean. Hilabetekari moduan kaleratu zen, nahiz eta gerora maiztasun handiegokoa izateko gogoaz azaldu. Geroago hamabostekari bihurtu zen eta gaur egun ere hala jarraitzen du. Sustatzaile nagusia Jon Mikel Arano izan zen, alboan Josune Agirre, Aitor Larrañaga eta Koldo Zubeldia zituela eta atzetik beste goierritar euskaldun andana bat izan ginen, denak ere baliabideak baino asmoak handiagoak genituenak. Udal batzuek berehala onartu zituzten dirulaguntzak baina jokabide hori orokortzea eta hitzarmen iraunkoragoetara iristea, hainbat urtetako lana izan zen, tartean mila eztabaida desberdin igarota. Hogei urteren buruan irautea meritu txikia ez izateaz gainera, badu beste meritu bat ere, alegia, beste batzuen ekimenarekin bat eginda, duela bost urte GOIERRIKO HITZA egunkari kronikaduna sortu izana. HITZA sortzean eta hari laguntzean, udal batzuek utzi egin zioten GOIERRITARRA laguntzeari, baina bizirik dirau eta hala bedi luzaro.

GOIERRITARRA lehenengo aldiz kaleratu zenean, *"Bildu*

berotu eta poztu" izenburudun editoriala argitaratu zuen eta bertan adierazi zuen *"...hilabetekaria izango da hasiera batean, zabala eta pluralista edozeren gainetik. Honen atzetik gabiltzanok ez dugu helburu politiko inmediatek."* Eta hori egia handia izan zen eta da batzuek agian hala ez uste izan arren. GOIERRITARRA aldizkarian beti egon da aukera gai jakin batez iritzi bat baino gehiago agertzeko eta lehen emandako iritziei ere erantzuna emateko. Hori ez da gertatzen espainierazko argitalpen askotan. Lehenengo aletik bertatik hasi zen hori praktikatzeko, garai hartan ziren Goierriko ur-beharrekin eta proiektu zen Arriarango urtegiaren gaiarekin eta bigarren alean ere jarraitu zuen gai horrek beste erantzun eta iritzi batzuekin.

"...Hutsune bat bete nahi dugu, espazio bat aurkitu eskualdearekin eta goierritarrekin zerikusi duten, berri, gertakari eta beste geureganatuz, eragin sozio-kulturalak sortuz eta Goierriko gauzak «Beterri»etara eramanez. Erdara seguruago dabil parte honetatik eta hortxe dugu helburua..." Hori dio editorialak eta hutsunea handia zen, herrietako berriak, espainiera hutsez eta espainierazko egunkari handietan soilik argitaratzen baitziren garai hartan, tarteka euskara oso urri zerabilten egunkari *"elebidun"* deituetan ere argitalpen batzuk egiten ziren arren.

Aurrerago dio *"Segidako orriotan ikusiko duena lehen saiotzat jo behar du honen irakurleak, horrela atera zaigu, ez du derrigorrez horrelakoa izan behar..."* Ez noski eta izan du aldaketarik GOIERRITARRAK hogeitau urte hauetan. Denak ez ziren txarrerako izango, gauza guztiak ez ziren behar bezain ondo egingo, baina bistan da ondo egindakoak askoz ere gehiago izan direla gaizki egindako baino.

Elkarriketek indar handia izan dute beti GOIERRITARRAN eta hasierako ale hartan eta ondorengoetan ere nabarmentzen da hori. Bertsoak ia alero argitaratu izan dira hasiera-hasieratik. Bigarren alean bertan herrietako berri txikiak hasi ziren agenda moduan, gerora kronika luzexka bilakatu zirenak eta GOIERRIKO HITZA hasi arte iraun zutenak. Gero, jakina den moduan, GOIERRIKO HITZAK kronika haiek izan ditu eta ditu bere mami nagusi.

Zorionak GOIERRITARRARI hogeigarren urteurrenean eta GOIERRIKO HITZARI bere bosgarrenean. Zorionak eta eskerrik beroenak Jon Aranori eta bere alboko kideei, sortzeagatik eta sendotzen lan egiteagatik eta baita geroztik jardun duten Loinaz Agirreri, Mikel Albisuri eta beste guztiei gaur arte irau-narazteagatik. Orain, duela hogeitau urte baino hobeto gaude euskarazko hedabide idatzien arloan. Hala ere, erasorik ez da falta eta hedadura ere oraindik ez da behar genukeen neurrikoa. GOIERRITARRA eta GOIERRIKO HITZA, goierritarrak euskalduntzen doazen heinean goierritar guztiengana iristea dugu erronka. Ea beste hogeitau urteren buruan lortzetik hurbil izaten garen...



Familia-guraso bat da, bere semeak ikasketak atzerrian egin ahal izateko Gizarte Ekintzak ematen dituen **beken** berri jakin nahi du.

Autonomo bat da, eta bere negozioaren **errentagarritasuna eta fiskaltasuna** optimizatu nahi ditu.

Etxebizitzaz aldatzea pentsatzen du, eta gure **mailegu berdeen** lerroaz interesatua dago.

Kultur etxe bateko zuzendaria da, **gazte sortzaileen** lehiaketa baterako laguntza bila dabilena.

Enpresa bateko zuzendari finantzarioa da, **zirkulatzailearen finantzaketa** kudeatzen ari dena.



kutxako kudeatzaile pertsonala da.

**KONPONBIDE BILA BAZABILTZA,
BETI IZANGO GAITUZU ONDOAN. LAGUNTZEKO PREST.**

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

‘Bada ikaragarri zabaldu den uste oker bat,
unibertsala eta kosmopolita gauza bera
direla, baina denok ohartuta beharko genuke
aspaldi unibertsala etxe ondoan duguna dela’



Patxi Zubizarreta

Unibertsala

Gaztetan, Joxe Miel Barandiaran jakintsu apala ezagutzeko zortea izan nuen eta asko izan ziren gogoan geratu zitzaizkidan haren pasadizo eta esanak, hala nola behin irakasle aleman batek eman zion gomendioa: ‘Has zaitetz hurbilekonetik, ezer baino lehen aztertu zeure ingurumaria, hori baita ondoen ezagutzen duzuna’. Esan beharrik ez dago jakintsu ataundarrak aintzat hartu zituela hitz haiek eta benetan obra bikaina utzi zigula. Urrutian, Tolstoik ere antzera hitz egin zuen: ‘Mundu zabala kantatu nahi baduzu, kanta ezazu lehenengo hazi zaren herrixka’; eta hurbilean, berdintsu, Pello Lizarralde: ‘Bada ikaragarri zabaldu den uste oker bat, unibertsala eta kosmopolita gauza bera direla, baina denok ohartuta beharko genuke aspaldi unibertsala etxe ondoan duguna dela’.

Gaztetan, Jon Aranoren inguruan hainbat lagun biltzen hasi ginen Ordiziako Dorrea etxean. Zapatu arratsaldeetako bilera haietan gogoan ditut Imanol Iturriotz, Tere Irastortza, Dionisio Amundarain, Koldo Zubeldia, Andoni Sarriegi, gaur egun ere Goierritarra aldizkarian kazetari dabilen Loinaz Agirre bera... Urte asko igaro dira harrezkero, hogeitaz urte ez nolanahiko, baina esango nuke Jon Aranoren hasierako intuizio eta konbentzimendua ez direla itzali, eta zerikusi handia dutela goian aipatutako hurbiltasunaren kontu horrekin, jakin zuela estimatzen eta preziatzen hurbilekoa —eta gu motibatzen—, eta horren lekukotasuna jaso duela aldizkariak azken hogeitaz urte gorabeheratsuotan. 368 ale izan dira, urtegunak baino gehiago, eta mosaiko baten teselak nola, halatsu jaso du eta ari da jasotzen Goierriko izaera eta bizimodua.

Tunisian bada Farid Boughedir izeneko zinema zuzendaria bat, besteak beste *Terrazetako mutikoa* filma egin zuena. Berak kontatzen du bizitzan zehar, nahi gabe bazen ere, hainbat istorio eta imajina jaso zituela, inkontzienteki, eta gero, horiek film batean kontziente bihurtzerakoan, osotasun baten barnean biltzerakoan, bai bera bai herritarrak konturatu egin zirela beren mundutxo ederra zela eta ondo sentitzen zirela bertan. Irudipena daukat Jon Arano Goierriko Farid Boughedir haren modukoa izan dela edo, beste modu batera esanda, lehengo Azkue, aita Donostia edo Barandiaran beraren aldaera modernoa, nekaezina eta temosoia. 368 aletan barrena hainbat argaz-

ki, kontu eta hitz propio jasota geratu dira, agertu dira bestela ere egunkarietan-eta agertzen ez direnak, baina batez ere herri-tar xume ezezagunak nabarmendu dira, eta horixe da aldizkari honen bertuterik handienetakoa, gure bailarari nolabait ere koherentzia eman izana*.

Orain dela urte mordoxxa beste ataundar bati, Joxe Arratibeli, irakurri nion mundua gehiago aldatu zela azken 20-30 urteotan aurreko 2000 urteetan baino. Ez zaio arrazoirik falta. Ziztuan goaz eta aldaketa bizkor hauetara egokitu ezinik gabilta, *shock* egoeran kasik. Oraindik ere gogoan dut, goial, elur giroan Larraitx aldera bizikletaz joan, eta Aralarretik biderik bide elurraren ihesi zetorren behor sail batekin topo egitea, nagusirik gabe, etxera bidea ondo ezagutu, eta Gaintza aldera bakarrik zihoazenak. Ez dakit zergatik, baina lehenaldiaren imajina zait niri behorren hori, seguru asko nik ere modu inkontzientean jasotakoa. Baina, esan bezala, gizartea asko aldatu da. Ordiziako *periari* begiratzea baino ez dago horretaz ohartzeko (lehen artaldeak batere festarik gabe ig-ar-otzen ziren Ordiziako kaleetan barrena), ikuskizunaren gizartea da gaur egungoa, itxurarena, makroproiektuena...

Juan José Millás idazleari irakurria diot, behin batez, bikote hiritar bat landa etxe batera joan zela asteburu pasa eta, hala-ko batean, konturatu zirela han zerbait susmagarria zegoela: etxetik ateratzen ziren bakoitzean igelen kantu hotsa entzuten zen; hala bada, etxera sartu-atera ibili dira, eta ingurua miazten ari direla traste ezkutu bat topatu dute belar artean, mugimendua sumatuz gero, igelaren kro-kroa imitatzen duena eta hiritar-rrak naturaren ederraz konbentzitzeko balio duena... Horixe da gure gizartea, pitxiplastikozkoa, itxurakeriazkoa, eta giro horretan egokitzen baina ahots eta nortasun propio eta kritikoarekin jarraitzen ikusi nahi nuke Goierritarra —eta Hitz, noski, eta Goierri Telebista—, gurea estimatuz eta preziatuz, gureak diren hitz eta esamoldeei eutsiz, iraganminik gabe, unibertsalagoak izan gaitezten.

(Gomendio bat ematen uzten badidazue, bai ederra, zentzu honetan, Xuan Bello asturiarraren *Historia universal de Paniceiros* liburua)

Zorionak! G+H

www.sortuenergia.com www.farmaetxe.com www.barandiaranzeramikak.com
www.txindoki.com www.salonso.com www.elevarmaterial.com www.geuria.com
www.laex.eu www.ordiziakoeuskaljaiak.com www.majori-kiroldegia.com www.urkibi.com
www.sustraiezblai.org www.adosphoto.com www.ekoerein.com www.goierritelebista.com
www.28kanala.com www.erlotelebista.com www.gardenmascota.com www.matxain.es
www.ikom.es www.goigarbi.com www.lamylazkao.com www.turbas.com www.iparfrio.com
www.ordiziakoferia.com www.gabiria.com www.nanarri.com www.zazpiarte.com
www.naforlab.com www.nicolasdelekuona.org www.goierrikobaratza.com www.igartza.info
www.xoxote.com www.carroceriasaranburu.com www.rotulastudio.com
www.gaurexpress.com www.tesorovasco.com www.jonjonprod.com
www.imarasukaldeak.com www.sasieta.net www.xoxote.com www.abitare-dd.com
www.samabi.com www.aganza.com www.tejasgarmendia.com www.merkalde.com
www.maizpide.com www.itxune.com www.gruasgoiherri.com www.peluqueriapascual.com
www.excavacionescelaya.com www.gainera.com www.aloska.com www.transogui.com
www.enkor.com www.turbas.com www.jelasa.com www.s-gamesa.com
www.graficassanmartin.com www.toldosagustin.com www.goiburni.com
www.acvmultimedia.com



60 baino gehiago... eta zurea?*



ACV MULTIMEDIA
WEB GARAPENA & KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Domingo Unanue Plaza 3 · ORDIZIA · T 943 80 57 99 F 943 56 50 11 @ info@acvmultimedia.com

*Zure beharretara egokitutako proiektuak garatzen ditugu, interneten presentzi hutsa izan nahi duten webguneetatik, eduki-kudeaketa maila handi eta sakona dutenak arte, intranetak eta e-dendak barne. Google eta bilatzaileetan posizionamendua egiten dugu. Gure lan gehienak diru laguntzak jasotzen dituzte.



Arrautzak eta Bere Elikagaiak

Gorrotxategi Oilategia E.A.
Bikuña, 19. 20213 Idiazabal (Gipuzkoa)
Telf.: 943 187 676 Fax: 943 187 661
e-mail: luis@avicolagorrotxategi.com
web: www.huevospitas.es

GORROTXATEGI
IDIAZABAL

Iparrak lehen zegoen tokian jarraituko du. Eguneroko bizimoduaren berri euskaraz ematen, gizartearen ertz ahalik eta gehienetatik jasotakoa herritarrekin konpartitzen, eskualdearen taupadak sentiarazten.



Aimar Maiz Morea

Esanak eta izanak bostekoa

Azken boladan sarri eta bide askotatik entzun dugu Joxemiel Barandiaran zenaren esaldi bat, "herriari jasoa herriari itzuli". Goierriko Hitzaren historia labur-luzeari buruz zerbait esatekotan horixe botako nuke lehenbizi. Bost urte daramatza Hitzak Goierriari jasoa Goierriari itzultzen. Izan daitekeen forma naturalenean eta logikoenean, euskaraz; zabal eta duin.

Hasieratik horixe izan da zeregina. Egunak eman duena eta goierritarrek egin dutena gainontzekoei azaltzea. Prentsaren berezko funtzioa. baina ez hori bakarrik. Zortzi orrialdeko argitalpena eguna joan, eguna etorri egitea ez da txantxa; eta ezinezkoa izango zatekeen hainbeste herritarrek, elkartek eta erakundek bakoitzak dagokionetik jarri dutena jarri izan ez balute. Bosgarren urteurrenean gogoratzeko eta goraipatzeko modukoa da elkarlana. Bestela ez baitzen ezer egongo euskarazko eguneroko prentsan kontatzekorik, ospatzekorik, hobetzekorik.

Aurrera begira ere elkarlanean dago bidea. Zailtasunez josia seguruenera, komeni eta nahi baino gehiago. Baina urteok zerbait erakutsi badigute zera da: edo denok batera egiten dugu, edo ez daukagu zer eginik. Horrenbestez, zorionak banatzerako orduan zati handiena Hitza goizero esnatzen lagundu duten guztiak, guzti-guztiak, ditugu gogoan.

Etorkizuna gaur bertan hasten da. Erronka handiak, kitzikagarriak bezain kezkarriak, ditu prentsa idatziak. Bat gutxi balitz, bi krisiren mamuak ditu gainean. Krisia, edo aukera berriak esploratzeko beharra, nondik begiratzen den. Egunkaria erosten dutenak geroz eta gutxiago dira orokorrean; gutxiago erositakoa irakurtzeko astia hartzen dutenak. Zer pentsatua ari da ematen joera hori, baita tokiko prentsan ere.

Inguruko egunkari guztiek galerekin edo iazko jarduna murriztuta bukatuko dute 2009. Gaitz erdi kolpea aurtengoa bakarrik balitz, baina datorren urtearen jiteak ez du ematen lasaiago geratzeko motiborik. Egiari zor, eta harpidedun, iragarle, laguntzaile eta irakurleek ere jakitea bidezkoa delako,

Goierriko Hedabideak etxe honek (Hitza eta Goierritarra argitaratzen dituen) poliki salbatuko du urtea; lana beltz eginda eta baliabide aldetik justuan ibilita, baina segitzeko bidea behintzat badago. Panorama ikusita zerbait badelakoan gaude. Eta, berriz diogu, hori denon ahaleginari esker izan da.

Egunkaria beti biharamunerako lanean ari da, baina orain beste bost urte (gutxienez) bideratzeko garaia tokatzen da. Sektorearen egoeraren gainbehera frenatzea izango da lana, itsasikarak azpian harrapatu gabe olatu egokiena hartzen saiatzekoa. Bi abantaila behintzat ikusten dizkiot tokiko prentsari: bat, gizartea diru aparretan leporaino "aberats" zebilen garaian ere pobrea izan dela tokiko euskarazko prentsa. Beno, hori berez ez da dantzan jartzekoa, baina horrek azala eginarazten du, gutxiarekin asko ateratzen erakutsi. Bestea, eta esaten ez gara aspertuko, herriarekiko gertutasuna, bere parte izateraino.

Luze baino lehen aldaketak ikusiko dira tokiko prentsan, baita Goierri ere. Zuloa saihestu behar da kosta ahala kosta. Baina nola? Bide berriak irekiz; gaur egungo produktuak aldatuz, hobetuz, egokituz; medio aldetik zabalduz; gizartearen beharretara eta nahietara gerturatuz... Egoeraren neurriira moldatuz, hiru hitzetan. Kemena, ideiak eta ahalmena badaude.

Baina iparrak lehen zegoen tokian jarraituko du. Eguneroko bizimoduaren berri euskaraz ematen, gizartearen ertz ahalik eta gehienetatik jasotakoa herritarrekin konpartitzen, eskualdearen taupadak sentiarazten. Zeregin horretan eragile izaten segiko du Hitzak, segitu beharra dauka. Hizkuntzaren normalizazioa da helburua, baina normaltasuna bidea. Anje Duhaldek dioen bezala maitasun hitz gutxiago eta hitzeko gozamen gehiago.

Har dezagun une bat Goierritarraren 20 urteak eta Hitzaren bostak gogoratzeko, ospatzeko. Eta egin dezagun aurrera eguneroko goierritarraren hitza zabaltzen. Barandiaranek zioen izena duen guztiak izana daukala. Esan dezagun hitza eta izan gaitez goierritar aurrerantzean ere.



Irizar, mende bat betea eta hazten

www.irizar.com



KONTSULTAK:
NATUROPATA
AKUNPUNTOREA
DIETISTA



Nafarroa etorbidea, 5
Tel.: 943 16 21 10
BEASAIN



SUTAN
www.sutan.biz



tximiniak, berogailuak, sukaldeak,
estaldurak eta pelletak



**aurrekontuak
konpromezurik gabe**

Mugitegi ind., B bidea, 6
URRETXU
T. 943 72 06 38 - M. 665 73 73 02



tximini-garbitzaileak

Duela hogeit urteko egitasmo hartan
sinesten jarraitzen dugun euskaldun guztiok
behar dugu euskal prentsa.



Aitor Asurmendi

Eskerrak denoi

Zeinek esan behar zigun 80ko hamarkadaren hondarretan euskaltzale talde batek Goierri eskualdean euskal aldizkari bat plazaratzeko asmoa izan zuenean, Goierritarra izenez ezagutuko genuen haur jaioberriak 20 urte beteko zituela 2009an? Eta XXI. mendeak Goierriko Hitza deituriko anaia txikia ekarriko ziola? Bai, lagunok, orduan ametsa zirudiena errealitatea da gaur egun! Euskaraz irakurtzeko zaletasuna bultzatzeko eta euskal kultura sustatzeko ezin baliagarriagoa izan zaigun aldizkariak euskara hutsean argitaratzen den balarako lehen egunkaria du bidaia lagun duela bost urtetik hona.

Biek elkar osatzen dute eta... elkar osatzen jarraituko ahal dute! Izan ere, ekonomi krisia mundu osoan gogor astintzen ari den garai honetan, euskal prentsa ere ari da bereak eta bi ikusten. Irakurle eta harpide kopurua, tantaka bada ere, jaitsi egin da Goierri eta datu horrek hausnarketa sakon samarra egitera eraman beharko gintuzke, duela hogeit urteko egitas-

mo hartan sinesten jarraitzen dugun euskaldun guztiok behar baitugu euskal prentsa.

Orain arte diruz lagundu duten guztien laguntza premiazkoa izango da aurrerantzean ere. Eskerrik beroenak eman nahi dizkiet, horregatik, Goierritarraren nahiz Hitzaren finantziazioan nabarmendu diren Eusko Jaurlaritzari, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Goierriko udalei, bailarako enpresei eta publizitatea txertatu duten goierritar guztiei! Eta behin eskerak ematen hasita, nola ahaztu hau guztia ahalbidetzen duten langileak, kolaboratzaileak, banatzaileak...

Eta tira, ospakizunak ospatzeko direnez, animatu zaitezte guztiok hil honen 23an Igartza Jauregiko burdinolan, arratsaldeko zazpitan, egingo den Goierriko Hitzaren eta Goierritarra aldizkariaren urteurrenen aurkezpen festara. Urriaren 30ean bertso saio polita izango da Legazpin eta, bukatzeko, hurrengo egunean jai mundiala Lazkaon: puzgarriak, tailerrak, herri kirolak, trikitixa, kontzertua... a ze pagotxa!



**ALTZAGAKO
UDALA**

**Euskal
prentsaren
alde!**

© 943-88 37 37 Faxa: 943-16 10 45 www.altzaga.net



**ARAMAKO
UDALA**

Euskal hizkuntza eta kulturaren alde

**Zorionak
Hitza**

**Zorionak
Goierritarra**


© 943-88 07 39 Faxa: 943-88 07 39
www.aramaudala.net



Tel: 943 16 22 26 Faxe: 943 16 22 27
Zubizkitza 70-71W - LAZKAO
www.kemenkoz.com
r.p.s. zbki 348/04



Esfortzu probak
Mediku azterketak
Entrenamendu pertsonalizatuak
korrika, txirrindularitza, triatloia, suhiltzaile
oposaketak, mendia...
Era guztietako dietak
argaltzeko, kirol errendimendurako...
Fisioterapia eta masaia
Podologia eta hanketako zainketak



 **ekoerein**
Produktu ekologikoak

Goardi poligonoa, 49
IDIAZABAL
Tel. 943802035
www.ekoerein.com

Ondorengo marken banatzaile ofiziala*:



* eta beste hainbat marka

Mahai-ingurua

Herri prentsaren lehena, oraina eta geroa

Herri prentsan zeresana daukaten hiru goierritar mahaiaren inguruan elkartu ditugu, herri prentsaren lehenaz, orainaz eta geroaz hitz egiteko.

Joxe Mari Muxika idiazabaldarrak gertutik ezagutzen du herri edo tokiko prentsa. Arrasaten bizi da eta bertako Arrasate Pressen eta Arrasate Telebistaren sorreran parte hartu izan du.

Ion Muñoa zeraindarra, Deustuko Unibertsitateko Giza Zientzietako Komunikazioko irakaslea eta ikertzailea da. 18 urte zituela, Zeraingo albisteak Goierritarran idazteko “ohorea” izan zuen.

Aimar Maiz gabiriarra, Goierriko Hitzaren zuzendaria da. Aurretik, Gabiriako albisteak Goierritarra aldizkarian idatzi izan zituen. Azken bi hauek, Goierritarrarekin hazi direla esan genezake.



Zerain Zerain parke kulturala
943 80 15 05

Bisita gaitzazu
www.zerain.com



Zeraingo Udala
943 80 17 24



MUTILOAKO UDALA

Tel.: 943 800 450 Faxa: 943 801 621

Mutiloko Udala euskara bultzatu nahian



Aimar Maiz, Joxe Mari Muxika eta Ion Muñoa.

Adin eta belaunaldi ezberdinetakoak zarete hiruak. Joxe Mari, zuk zeuk, Arrasate aldeko herri prentsa gertutik eza-gutzen duzu, hasiera-hasieratik partaide izan baitzara. Zer nolako garaiak ziren orain dela 20 urtekoak?

Joxe Mari Muxika: Nik daukadan ibilbidea, Arrasate Pressen sorrera da, eta ondoren ATB. Zer eragin gintuzten hori egitera? Batez ere, euskarazko informaziorik ez zegoelako. Momentu horretan Argia bazegoen, eta han eta hemen eskuorriren batzuk bazeuden, euskarazko publikazioak bazeuden. Oihartzuna izan zuena, Arrasate Press zen herri prentsan.

Aimar eta Ion, Goierritarra aldizkariarekin hazitakoak zarete. Zein oroimen duzue?

Aimar Maiz: Mutikotan harrapatu gintuen Goierritarraren sorrerak. 11-12 urterekin, eskola garaian. Gogoratzen naiz gure adin-neko jendearengan ere nolako arrakasta izan zuen. Harpidetza egin genuen, ez inork eskainita, lagunaren artean baizik, Goierri bertako informazioa interesgarri zitzaigulako, dohainik gainera. Sorrera bera ez dugu bizi izan baina emaitza lehenengo

momentutik. Naturaltzat izan dugu eskualdean herri prentsa edukitzea, bertako paisajearen zati izan balitz bezala. Naturalki jaso eta behar izan dugu. Inoiz pentsatu gabe egon behar ez lukeenik ere.

Ion Muñoa: (24 urte ditu) Ni gogoratzen naiz etxera iristen zela Goierritarra. Eskolara ere iristen zen, Mediki itxarongelara ere bai... Goierritarra esku artera iristen zen eta jendea nahiko zain egoten zen. Aimarrek esan duen bezala, naturaltasun osoz bizi izan dugu guk, betitik ezagutu izan dugun zerbait izan da. Gogoratzen naiz, 13-14 bat urterekin, eskolatik bisita egin genuela Goierritarrara, Ordiziara, eskurtsio bezala. Guretzat, prentsa erredakzio batekin genuen lehenengo kontaktua izan zen. Goierritarra produktu bezala ikusten duzunaren atzean zer zegoen ikustea, nahiz eta erredakzio xume bat izan, guretzat txokantea izan zen. Modu erabat naturalean ikusi dugu. Denbora tarte txiki batean izan bazen ere, izan nuen aukera partehartzeko eta herriko berri emateko. Niretzat ohore bat bezala ere bazen. 18 urterekin aukera daukazu Goierritarran

BEASAINGO
UDAL EUSKALTEGIA
TEL.: 943028100

LEGAZPIKO
UDAL EUSKALTEGIA
TEL.: 943731167

URRETU-ZUMARRAGAKO
UDAL EUSKALTEGIA
TEL.: 943723310

www.udaleuskaltegiak.net

I AM
TÚ ERES
... هي

GU GARA
VOUS ÊTES
ELES SÃO

idazteko zure herriko berri. Txikitatik ohitu zara Goierritarra irakurtzen, eta ohore bat da herriko berri ematea. Aukera ere hori eduki nuen.

Euskarazko informazioa jasotzeko aukera emateaz gain, zer eman dizue Goierritarrak edo tokiko prentsak? Adibide bat jartzearen, jende askok, herri aldizkarietarako esker jarri izan da euskaraz irakurtzen. Herri prentsak publikitatean izan duen eragina ere azpimarragarria da. Merkataria, euskaraz publikitatea egitera bultzatu ditu herri prentsak.

Muxika: Hori ikaragarria izan da. Nik uste dut, hiru gauza ekarri dituela euskarazko prentsak. Bat, herritarrei informazioa jartzea, merkatariei iragarkiak emateko aukera ematea eta hirugarrena, idazle zaletuek idazteko plaza. Merkataria ikaragarria da. Herri prentsa dagoen lekuetan, normalizatzen ari den gauza bat da. Informazioa jendearen esku jartzea eta merkatariei iragarkiak euskaraz egiteko aukera ematearekin, eragiten ari gara, baina euskararen aldeko eragina ez da neurtzen, ez da baloratzen, ez da ordaintzen dirulaguntza publikoetan. Ez gara bada merkataria euskaratzeko planak egiten? Iragarkiak euskaraz lortzea eta eustea izugarria. Gehienek, elebrietan egingo lukete baina euskara hutsean egiteari eustea ikaragarria da, eta hori herri prentsak egin du. Goienkariak, bere espazioaren %20 publikitatea da. Eta hori dezente da. Publikitatea ez da diru iturria bakarrik izan, baizik eta, euskararen garapen izugarria. Eta eutsi egiten zaio.

Muñoa: Hiru horietaz aparte, beste bi ekarpen ere egingo nituzke: bat, eskualde mailan oihartzuna izateko altaboz bat

Eskualde mailan oihartzuna izateko altaboz bat izan da, batez ere herri mugimenduentzat eta antolatzen den edozein gauzentzat. ION MUÑOA

izan da, batez ere herri mugimenduentzat eta antolatzen den edozein gauzentzat. Hori garbi ikusten dugu, ni Zeraingoa izanda, edozer gauza dagoela, herriaz aparte, ingurukoek ere jakiteko zer ari garen egiten Zerainen. Eta azken urteotan, eguneroko informazioarekin oraindik gehiago.

Aipatu direnez aparte, nik uste dut badagoela beste elementu bat, intangibleagoa: pertenezia, identitatea lantzen, sendotzen lagundu duela iruditzen zait. Nik uste dut, Goierriko izaera bat, aurretik ere bazegoela, baina horrek lagundu du hori sendotzen. Eskualdeko Garapen Agentzia batek baino kohesio handiago lortzen du herri prentsak. Ez daukat daturik hori esateko, baina nire irudipenarako hala da. Azken urteotan, eguneroko prentsa edukita eta telebista edukita, oraindik gehiago.

Muxika: Debagoienan ez zegoen eskualde zentzurik. Herri bakoitzak bere aldizkaria zuen. Ez dut esaten eskualde egiteko helburuarekin egin zenik batura Goienkarian, gehiago egin zen, etorkizunerako superbibentzia ziurtatzeko. Baina baita ere, eskolak zirela, industria ere bai... harreman handia zegoen. Eta horri gorputz zentzu bat emateko ere balio izan du. Goienkariaren inguruan indartu egin zen hango Mankomunitatea.

Maiz: Horiek izango lirateke ildo nagusiak. Laburbiltzeko, bate-tik normalizazioa genuke. Askotan esaten den hitz goren hori, zer den ere oso ondo ez dakiguna, ba, horixe da: euskaraz saltzen duen merkataria eta euskaraz erosten duenak, iragarkiak ere euskaraz izatea. Ximple eta xume, baina logika ere azalera-tzea. Edo irakurleak, euskaraz bizi, euskaraz sortu, euskaraz antolatu eta jasotzen duen hori ere euskaraz izatea. Azken batean, normala izatea.

Bestetik, nortasunaren kontu horrekin ere ados nago. Zerbait bagarenaren bozgorailu gara. Herri txikiak batez ere. Goierri gehienak herri txikiak dira. Horiek zein leku daukate herri prentsarik kanpo? Horientzat bai izan dela herria badela eta martxan dela prentsan idatzita ikustea nortasunaren ezaugarri. Eskualdea izugarritzko altxorra da.

Herri prentsak ekarri dituen gauza onak aipatu dituzue. Haibeste gauza on ekarrita, baloratzen al da herri prentsa-aren lana?

Muxika: Nik ez daukat zalantzarik, baiezkoa da erantzuna. Gure biztanleria 63.000 biztanle ingurukoa da. %70-a izango

Goierri, Jatetxea

Kale nagusia, 18 tel. 943 88 00 00 BEASAIN

Eguneroko menuak
Asteburuetan karta

HANKARA
podologia zentroa

Ainara Etxeberria

Tel.: 943 887 946
Zelaeta-berri plaza,4 BEASAIN



Nik ez dakit zergatik, baina izugarrizko erreparaoak jarri izan zaizkio beti horrelako proiektuei, jeneralean. Eta ez dut esango kontra eta ezetzera jo dutenik, baina laguntzeko eta aurrera ateratzeko ez da behar besteko ahalegina egin edo ez da egin nahi izan. AIMAR MAIZ



gara euskaradunak, euskara dakiena. Ciesek egindako azterketaren arabera, 36.000k irakurtzen dute Goienkaria. 18.000 ale zabaltzen dira. Eskatzen duenari banatzen zaio. Jendeak irakurri egiten duela da datua. Irakurlegoak aintzat hartzen du. Agintariek aintzat hartzen duten? Hori beste galdera bat da. Agintariek aintzat hartzen duten ala ez, ez dakit, nik zalantzan jartzen dut.

Muñoa: Nik uste dut jendeak orokorrean baloratzen duela. Igual, baloratzen ez dena da, batez ere, ezagutza faltagatik, horrelako lan batek atzean daukan lana. Hori ez da baloratzen, 8 orrialdeko egunkari bat egunero ateratzea zer nolako lana den eta horrek atzetik daukan zama dena. Horretaz jendea ez da konturatzen eta hori baloratzeko pixkanaka joan beharko da, heziketa egiten eta kultura sortzen. Hori pixkanaka egin beharreko zerbait da. Oso inportantea da baita ere, gero kalitatea bermatzeko, langileen kalitatezko egoera profesionala bermatzeko.

Agintariei-eta dagokienez, iruditzen zait, egon dela salto dezentea: orain norbait ateratzen ez bada eta deialdia egin baldin bada, hau ez dute kontuan hartu eta abar esaten da. Jendeak agertu nahi duenean, eta agintariek berdin, nik uste kontutan hartzen dutela. Lehenengo hasi ziren hainbeste kontuan ez hartzen baina jendeak irakurtzen duen gauza bat denean, eta irakurtzen baldin bada, etxeetan sartzen baldin bada, jendeak iritziak baldin badauzka... jakina, agintariek hor egon behar dute.

Beste gauza bat da dirutan nola islatzen den eta zein eragin daukan. Informazio eta iritzi sortzaile bezala daukagun papera, nik uste dut, baloratzen dela.

Maiz: Nik ere bereizketa hori egingo nuke. Herritarrek noski baloratu izan dutela, bestela Goierritarra aldizkariak ez lituzte 20 urte beteko eta Hitzak 5 ere ez. Hau da, masa bat ez baleuka, zain dagoena, ordaintzeko prest dagoena... hilabete ere ez genuke egingo. Ikusten da ibilbide bat osatu dela.


maizpide
euskaltegia-barnetegia · lazkao · 943 88 92 31 · lazkao@maizpide.com



EUSKARA
BIZI

EUSKARAZ
BIZI

ZORIONAK!!

Bestetik, dikotomia hori aipatuta, agintariak, udalak, erakundeak... Nik ez dakit zergatik, baina izugarritzko erreparaoak jarri izan zaizkie beti horrelako proiektuei, jeneralean. Eta ez dut esango kontra eta ezetzeraz jo dutenik, baina laguntzeko eta aurrera ateratzeko ez da behar besteko ahalegina egin edo ez da egin nahi izan. Erreparao horiek badaude, egon dira eta zoritxarrez egongo dira. Ez dudana ulertzen da, horrelako proiektu batek, alderdi guztietatik begiratuta, dakarren aberastasuna ikusita zergatik ez den gehiago baloratzen.

Dagoen ekonomia mugimendua ere ikusi behar da. Azkeneko krisi honetan enpresei izugarritzko laguntzak ematen ari zaizkie. Goierriko Hedabideak enpresan 25 bat lagun gabil-tza lanean; egunero horrek sortzen duen lan mugimendua eta ekonomikoki begiratuta eskualdeari ematen dion aletxo, hor dago eragin hori enpresa bezala ere, nahiz eta gutxieneko baldintzetan ari garen. Ez da baloratu, erreparaoetan eta betiko kontutan erortzen garelako. Baloratua izan delako jarraitu izan dugu orain arte, noski, baina ikuspegia zabaltzen ez bada beste koska horretan eta ez bada gehiago baloratzen eta babes gehiago ez bazaio ematen, egun batetik bestera haizea hartzera joan daitekeen zerbait da hau. Interesatzen denean tresna bezala erabiltzea ondo dago, horretarako da hein batean, baina ikusi behar da zertarako nahi den eta zein helburu izan behar dituen. Horrelako proiektu batek helburuak oso ondo betetzen ditu eta hori ez da baloratzen. Herri mailan oso ondo erantzun zaio proiektuari, jarraipena eman diolako eta orain arte iraun duela-ko; baina erakunde mailan, orokorrean, gehiago egin zitekeen. **Herriararren artean horrelako harrera izan dutelako agintariak behartuta sentitu al dira laguntza ematera?**

Maiz: Bai, hori garbi ikusi dut Hitzan. Inkestak egin dituzte. Emaizak oso onak atera eta orduan zintzilik gelditzen dira. Jendearen harrera, balorazio ona, zabalkundea eta ezagutza ikusitakoan "hau zerbait bada" esaten dute. Beti herria baino atzeragotik ibili izan dira ordea, eta hego handiegirik eman gabe.

Zuk Joxe Mari, zalantza azaldu duzu erakundeen laguntzen gaian.

Muxika: Jendearen harrera erakusten den neurrian, Ciesen azterketak horregatik gastatu dugu, enpresa profesionalek konfirmatzen duten neurrian, zaila zaie zalantzan jartzea. Baina dis-

tantzia hartzen dela egia da. Distantzia hartzen dute agintariak, ez dutelako kontrolatzen, sinpleki. Alderdi politikoei, kontrola-tzen ez duten hura, ez dute bultzatzen.

Dirulaguntza publikoa beharrezkoa da horrelako proiektu batek aurrera egiteko. Ekonomia krisiarekin dirulaguntzak gutxiko al dituzte?

Muxika: Krisia dago, baina lehentasunak ez dira krisian sartzen.

Muñoa: Gaur gaurkoz beharrezkoa dira laguntzak aurrera egiteko, zerbitzu publikoko funtzio hori betetzen duelako eta gainera euskararen normalizazioan betetzen duen paper garrantzitsuagatik. Dohakotasuna ametsa ez den bezala, ametsa ere bada, dirulaguntzetatik alde egitea. Normalizazio prozesu bat horixe litzateke. Erabat autónomo izatera iritsi gure publizitate eta gure erosleekin. Gaur gaurkoz beharrezkoa direla, garbi ikusten da.

Maiz: Zoritxarrez beharrezkoak dira.


Interneta

Interneta, dohainik daukagu. Nola uztartu papera eta interneta?

Maiz: Laster internetarekin gertatuko da gauza bera. Doakoa da. Baina hemendik epe batera, doakoa izaten jarraitu ahalko du publizitate iturriarekin bakarrik? Gaur egun zuloa egiten dute webek. Nik uste dut hor ere etorriko dela eztabaida.

Muxika: Adin multzoak egingo bagenitu, nik uste dut 20 urte-tik beherakoak, internetetik gehiago elikatzen direla, idatzitik baino, momentu honetan. Hor ematen diozu erantzuna, eta euskararen ikuspegitik ari naiz, edo bestela, gure prentsak ez du eraginik izango. Etorkizunari lotuz, kasi-kasi ezinbestekoa ikusten dut internetaren gantxo edo engantxea. Goienkaria egiten baduzu, interneta egitea ez dauka koste gehigarri handirik. Idatzizkoa utziko bagenu egitetik, ea nola ordaintzen den. Nik uste dut erabat egokia izan dela Bidasoaldeko Hitzaz. Astero idatzizkoa eta egunero internetekoa. Horrek egingo du tokia. Interneta eta idatzizkoa bateratu behar dira. Beste batzuk alde-rantziz egin dugu hori: asterokoa eta gero interneten katiatu, geroz eta gehiago gainera. Irakurlegoa nora doan ikusita, formula egokia ikusten dut.

Gaurko egunean, %64ak ordenadorea etxean dauka. Nahi



EUSKABER, S.L.
ZALDIBIA
Tlf: 943 16 09 71
euskaber@euskaber.net

EUSKAL BASERRIKO ATXAURTZA
Ona den seinale
Señal de que es bueno
www.euskolabel.net



Goierrialdea
autobusak

Mota guztietako bidaiak

www.goierrialdea.com
Tel. 943885969 Fax. 943804049
Gudugarreta auzoa BEASAIN



duzun lekuan sartzen zara eta irakurri egiten duzu. Hala ere, nik uste dut ez duela idatzizkoa ordezkatuko. Nik ez dut sinisten. Internetarena ezinbestekoa ikusten dut, baina ez du idatzizkoa botako, ez dut uste. Interneten artikulua bat irakurri duenak, idatzizkoan aurkituko du artikulua hori.

Muñoa: Nik uste dut eredu berriak bilatu behar direla.

Muxika: Herri prentsak ezin du interneta erabili gabe utzi. Obama Bakearen Nobel sari-dun izendatu dutela bezain garrantzitsua da, bizilagunak istripua izan duela jakitea.


Muñoa: Biak konbinatzen jakitea da gakoa. Ez du balio paperean dagoena interneten jartzea. Aktualitate erritmoak beste batzuk baitira.

Muxika: Interneteko informazioa ez da prentsako informazioa. Forma eman behar zaio. Ezin dugu lekuko informazioa beste batzuren esku utzi.

Maiz: Besteek baino azkarra-ga, hobeto edo osatuago ibili behar dugu. Pentsa zein lan den hori! Baina zalantzarik



20 urtetik beherakoak,
internetetik gehiago elikatzen
dira, idatzitik baino. Hor ematen
dionu erantzuna, eta euskararen
ikuspegitik ari naiz, edo bestela,
gure prentsak ez du eraginik
izango. Etorkizunari lotuz, kasi
kasi ezinbestekoa ikusten dut
internetaren gantxoia edo
engantxea. JOXE MARI MUXIKA



gabe, hor egon beharra daukagu, eta orain arte baino indar askoz gehiagorekin. Hor ez baldin badago, zerbait falta da. Ahal baldin bada, besteek ematen ez duten gertutasun hori aprobetxatuz, besteek ematen ez dutena emanaz. Hori da herri komunikabideen erronka internetean ere.

Gazteak aipatu dituzue, herri prentsaren etorkizuna. Nola erakarri gazteak?

Muñoa: Gazteak aipatzen direnean, gauza aipatu nahi nuke. Egia da, prentsa gutxiago irakurriko dugula paperean, baina komeni da gauza bat presente edukitzea: inoiz, inongo belaunaldik, euskaraz, orain hainbeste ez du idatzi, eta irakurri ere ez. Hori presente edukitzea beharrezkoa da. Zein euskara maila, zein erregistro... erabiltzen duten... hori eztabaidatu daiteke. Tokiko prentsak, gertuko interesatzen den momentutik, eta gertuko interesatzen dela egiaztatuta dago, tokiko prentsak gazteengan ere badu eremua, baina gakoa, eta zailtasuna hor



Euskal Herriko artzaiok,
gazta gure etxeko esnearekin
egiten dugunok,
milaka urteko teknikari
egungo beharriazane
erantzuteko bitartekoak
egokitu dizkiogu.

Artzai Gazta Elkarte
Kale Nagusia, 37 • Idiazabal
www.artzai-gazta.net
artzaigazta@artzai-gazta.net
tel. 943 18 71 29

dago, nola iritsi gazteengana, beraiek ez baditugu erakartzen. Internet aipatzen da baina internet esatea ez da nahikoa. Internet, kanala da. Hor nola iritsi da kontua. Asmatu egin beharko dugu etorkizunera begira. Gai aldetik bai, entretenimentu aldetik ez, baina gertukotasuna daukan momentutik, nik uste dut, gazteek etorkizunean ere jarraituko dutela tokiko prentsa irakurtzen.

Muxika: Ez litzateke txarra izango, gazteengana joan eta zer nahi duten galdetzea. Ez dugu eragiten gehiegi. Eman gehiago egiten dugu, eragin baino.

Muñoa: Gazteak inplikatu egin beharko ditugu proiektuan.

Muxika: Gazteengana joan egin behar da, biltzen diren lekue-tara. Interpretatu egin behar ditugu gazteak.

Maiz: Garbi dago izugarritzko dibertsifikazioa datorrela. Gazteari interesatzen zaiona adinekoari ez zaio interesatzen, eta alderantziz. Orain, gainera, dibertsifikatu egin da dena, bai eduki aldetik, bai medio aldetik. Lehen egunkaria erosten zen, interesatzen zitzaizuna irakurri eta kitto. Orain hamar mila bide daukazu informazioa lortzeko. Sektore bakoitzari bere albistea ematera joan beharko garen ez dakit, baina desafioa hori izango da. Beraiek bila etorri gabe, beraiek dauden lekura joaten asmatu behar dugu.

Krisia

Prentsa, bi krisi motak harrapatuta daukala esaten dugu. Batetik, krisi ekonomikoak, eta bestetik, prentsa beraren krisia. Krisi ekonomikoak zertan eragin diezaioke herri prentsari?

Muxika: Krisiak eragina dauka, agintarien aldetik, herri prentsa ez daukatelako lehentasunen artean. Inpresio hori daukat. Gure kasuan, nola ez den kobratzen, ez dut uste eraginik izango duenik harpidetzetan. Baina eragina, agintarien aldetik bai. Publizitatean ere ikusten ari gara. Beheraka doa, baina eusten ari gara. Publizitate txikia da, herrikoa.. ez da hainbeste nabaritzen.

Maiz: Goierrin nabaritu da publizitatearen jaitsiera, baina eusteko moduan gaude.

Muñoa: Kontuan hartu, paperezko prentsa, 2008ko bigarren seihilekoan, batez beste, %40an erori dela. 2009an ere bai. Tokiko prentsak tokikoa den aldetik, kostu aldetik merkeagoa

da merkatarientzat eta bestetik, helburuko publikoarengana zuzen-zuzenean iristen da. Ikuspegi aldetik, abantailarekin jokatzen du herri prentsak. Prentsa orokorraren aldean, herri prentsa, ondo eusteko moduan egongo dela iristen zait.

Eta papereko prentsaren krisiak?

Muñoa: Prentsa eredu dago krisian, prentsa eredu tradizionala. Urteko, %40-50 irabazien eredu hori dago krisian. Orain, publizitatea, %40 jaitsita ere, egunkari asko aurrera ateratzeko moduan dira. Horrek zer esan nahi du? Zenbateko dirutza ari ziren irabazten? Orain esan nahi du, %3-4ko irabaziekin bukatuko dutela urtea. Marjen horiekin ari dira. Alde horretan, herri prentsa beti krisian egon da. Marjen hori ez du sekula ezagutu.

Niri ez zait iruditzen prentsa krisian dagoenik. Beste gauza bat da, formato aldetik gertatzen ari diren aldaketak. Lehen aipatzen aritu garen internet, multimedia... Prentsa tradizionalaren eredu dago krisian baina ez zait iruditzen komunikazioaren ikuspegitik, informatzeko ikuspegitik eta eragiteko ikuspegitik krisi hori badagoenik.

Muxika: Informazioan, eskari aldetik, ez dago krisirik. Merkato hori badago. Bitartekoak daude krisian, batez ere, prentsa idatzia. Beste bideak, ikusi egin behar dira.

Maiz: Betiko prentsa bai, krisian dago. Bai enpresa aldetik, izugarritzko galerak izaten ari direlako. Baina baita, krisi finantziero hau pasata gero ere, urte batzuetatik hona datorren paperaren krisia bera zain egongo delako. Gero eta gutxiago erosten da papera. Horrek esan nahi du geroz eta publizitate gutxiago inbertitzen dela paperean. Kezka eta krisi hori badago. Bi krisi horiek egin dute bat mundu mailako prentsari. Ikus-entzunezkoak salbatzeko moduan ikusten ditut; idatzizkoa aldatu egingo da, aldatu egin beharko du egoeratik.

Tokiko prentsak balioerantsi bat gehiago izan al dezake? Zeintzuk izango lirateke herri prentsaren erronkak?

Muxika: Jendea ez da informazio gutxiagorekin konformatuko. Alderantziz, gehiagora da eskaria. Baina nola hartuko du informazio hori, zein bitartekorekin? Hori da prentsa idatziaren erronka.

Muñoa: Informazioaren zurrumbilo horretan, hainbeste iristen zaigun horretan, erreferente beharra daukagu. Lehen erreferente batzuk egon dira, gehiago ez zeudelako. Telebistaren kasuan, orain dela 30 urte, telebista kate bakarra ikusten zen hemen.



MENDIZABAL
abeltzaintza

Bertako haragia baserritik zuzenean

686 325 511- Juan Antonio
686 301 313- Maria Luisa
galamendi@terra.es

Mendizabal Baserria
20.248-Arama (Gipuzkoa)




TOLARE

SAGARDOTEGIA

Urte guztian zabalik
Arrainetan berezitasuna

☎ 943 18 01 19 **ATAUN**



Pentsatu urte gutxitan, nola aldatu den. Orain hainbeste daude-
nean, erreferente batzuk behar ditugu. Erreferente izaten asma-
tzen duten horiek, informazio guztiaren ozeano horretan koka-
tzeko, benetan, gertutasuna plus bat da. Gertuko informazioa
ematen erreferente denak, harek, gero ere, lekua izango du.

Maiz: Tokiko prentsak eta komunikabideek hasiera-hasieratik
eta sortzetiko izaeratik, gertukoa izatea du balio erantsia.
Gertukoa eta jendeari oso-oso berea egiten zaiona. Balio eran-
tsi horrek emango dio sostengua gero ere. Eskualdea eskualdea
den bitartean eta herria herria den bitartean, izango da halako
beharra edo nahia. Prentsa orokorretik bereizten gaituena ger-
tukoak izatea da, eta eguneroko bizitzaren parte izatea.

Muxika: Lehen esan duguna ahaztu gabe: emateko bitartekoa-
rekin kontuz! Aztertu beharra daukagu.

Maiz: Bai, asmatu beharrekoa non eta nola eman da.

Muxika: Hori da, daukagun erronka bat baina beste erronka
bat ere botatzera ausartuko nintzateke ni: hor gaude, eta mer-
katuan ez dago beste beharrik gaur ase gabe dagoenik? Ez
genuke salto egin beharko proiektu berri batera? Oraingoarekin
jarraituz, baina adibidez, ez da posible kirol aldiakari edo egun-
kari bat euskara egitea, euskal prentsan gabiltzan guztion arte-
an? Ez nintzen bakoitza bere aldetik hasiko, elkarrekin baizik.
Topagunea, Ekt, Argia...

Muñoa: Etorkizunaz hitz egiten denean eta innobazioaz hitz
egiten denean, benetan formula magikorik ez dagoela jakinda,
nik uste dut, herri prentsaren erronka izango dela, etengabe
aldatzen, egokitzen, berritzen joatea, helburuetara hobeto iriste-
ko bitartekoak kontuan hartuta. Egutero lanean izpiritu horre-
kin lan egitea. Gauzak probatu, beldurrik gabe, internetak zer-
bait ona baldin bada, kostu handirik gabe gauzak probatu dai-
tezkeela. Probatu, arriskatzuz eta formatu berrien bila joanez
beti, egoera ere aldatzen doalako. Izpiritu horrekin eta aurretik
datorren historia guztiarekin, herri prentsak gero ere edukiko
du etorkizun oparoa.

Prentsa tradizionalaren eredua
dago krisian baina ez zait
iruditzen komunikazioaren
ikuspegitik, informatzeko
ikuspegitik eta eragiteko
ikuspegitik krisi hori badagoenik.



ION MUÑOA

Goierriren bihotzean, paisaia kulturala eta naturala




◀ **SEGURA** [943 801749]
Ardixarra Etxea:
Erdi Aroko interpretazio zentroa.
Andra Mari Jasokundearen eliza
Ibilbidea hirigune historikoan zehar

[943 188203] **IDIAZABAL** ▶
Idiazabal Gaztaren
Interpretazio eta Dastatze Zentroa
Ondramuño gaztandegia



◀ **ZERAIN** [943 801505]
Ondare historiko eta kulturala
(herri museoa, gartzela eta eliza)
Energia berriztagarrien erabilera
(Larraondoko zerrategia)

BURDINAREN MENDIA
Aizpita Adieraztegia
Kiskaltze labeak
Polborina galeria



www.algabe.com



Doakotasuna

Urte askoan, doakotasuna izan da herri prentsaren ezau-garrietariko bat. Egokia izan al da?

Muxika: Dohainik, baina harpideekin. Egokia izan den dohakotasuna? Niretzat, erantzuna, baiezkoa da. Doakotasuna egokia da. Ez dit balio, ordaintzen ez dena ez da baloratzen esatea. Doakotasuna zergatik? Mugatu egiten zaituelako kobratzen hasten baldin bazara. Nork ez du ordaintzen? Errenta txikiena daukanak, ezagutza txikienak daukanak, euskarara sartu berria denak. Guk egin dugu proba. Asteleheneko Goienkaria egiten dugu eta hori kobratu egiten da. 5.000 aletik gora ez gara sekula pasatu. Publizitatearekin ere eskasago. Orduan, zeren eragi-

na da handiagoa, 5.000rena edo 18.000rena? Nik ez daukat zalantzarik et helburua euskararen eragina daukagunez, gu gure planteamendua dohakotasuna da. Astekarien erritmotik ari naiz hizketan.

Muñoa: Hasierako faseetan beharrezkoa iruditzen zait dohainik izatea. Zertarako? Etxeetara iritsi ahal izateko, penetrazioa lortzeko, ondorioz, irakurleak lortzeko eta helburuetara gehiago iristeko. Hor doakotasuna garrantzitsua da. Baina horrekin batera ikusten dut, doakotasunarekin neurri batean jendea gaizki ohitzea ere badatorrela. Nahi dut eta exijitzen diot horrelako proiektu edo produktu bati, ordaintzen dudana beste edo-



**ZALDIBIAKO
UDALA**

***Euskaraz bizitzen
eta gozatzen
laguntzen diguzue***

zeini exijitzen diodan gauza berbera, ordaindu gabe. Jende bat lanean ari da eta lanean ari den jende horrek ere bizi egin behar du. Normalizaziorantz doan heinean, eguneroko prentsa, ordaindutakoa izan behar da. Behar bat sortu behar zaie irakurleei eta benetan estimatzen eta baloratzen duenean, beharra sortzen da, eta ordaintzeko pausoa errazago emango da. Normalizaziorantz goazen heinean, eguneroko prentsa ordaindu egin behar dela uste dut, merkatuan berdin konpetitzen baitu, nahiz eta beste helburu batzuk ere eduki.

Maiz: Edozein argitalpenen azkeneko helburua, jendeak ahalik eta gehien irakurtzea eta ahalik eta zabalkunde handiena izatea da. Estrategia bezala ulertzen baldin bada doakotasunarekin hastea, tira. Baina jarraitzea... epe luzera ez dut ikusten erren-tagarritasun praktikorik irakurle kopuru aldetik ere. Azkenean, ez dakizu jendeak debalde delako hartzen duen, interesatzen zaiolako hartzen duen, edo zertarako jasotzen duen. Ordaindutako zerbait denean jendeak interesatzen zaiolako erosten du. Ahalegin bat egin du. Bestetik, komunikazio enpresa batentzat nolabaiteko presio bat da, jendearengana iristeko, gehiago zabaltzeko eta hobetu nahi izateko barne beharrentzat... Nik uste pekatu txiki bat egin dela tokiko prentsan, dohainik utzita hainbeste denboran. Hori hasieran, bai, jendea ohitu dadin, baina garatu ahal izateko berak kontrolatu behar ditu diru iturriak, eta doakotasunarekin ezinezkoa da.

Muxika: Ni ez nago ados. Zein da helburua? Guk jarrita daukagun helburua da, euskaldun bat dagoen etxe batean aukera izan dezala euskarazko prentsa edukitzeko. Zertarako? Euskararen eragina izan dadin. Zertarako? Zabalkunde horrek ematen duen iragarki merkatuari eusteko eta zabaltzeko. Zabalkundean zenbakirik ez badaukazu, hankaz gora joaten hasten zaizu, bai irakurle kopurua, bai iragarkien kopurua. Eta hori ikusi egiten da. Guk ikusten dugu, gure dar-magun sisteman, egonkortasun batera iristen ari garela. Krisi egoera honetan, tokiko prentsari eutsiko zaiola iruditzen zait, publizitateari eusten zaion neurrian. Eta publizitateari eusteko, zabalkundea behar da. Irakurleak zergatik hartzen, jasotzen duen? Azterketak egin behar dira, eta ikusi irakurtzen den ala ez. Zuk, debalde hartu duzun paper edo aldizkari bat ez duzu irakurtzen? Segun.

Normalizazio seinale izango litzateke, ordainduz, aldizkari edo egunkari bat finantzatzeko kapazitatea bagenuke. Baina

gaurko euskararen merkatuan, zaila dago.

Doakotasunaren aldekoa naiz ni, zalantzarik gabe. Eta doakotasunaren gaian, erakundeekin ez nator bat. Erakunde publikoen argumentazioa da, interesatzen ez dena ez dela ordaintzen. Hori ez da egia.

Maiz: Akats bat izan da niretzat. Euskarazkoa delako, automatikoki, dohainik izan behar du?

Muxika: Zergatik izan behar du irakaskuntzak dohainik? Zergatik izan behar du telebistak doan? Nik ez dut diferentziarik ikusten. Zerbitzu publiko bat da, behar publiko bat da, eta horrek diru publikoa behar du. Hori da nire tesia.

Maiz: Ez daukat zalantzarik zerbitzu publikoa dela. Posta zerbitzua ere publikoa da, ordaindu egiten da; autobusak ere zerbitzu publikoa da, trenak ere bai... eta ordaindu egiten dira. Diru publikotik bakarrik ezin daiteke segi. Kobratzea beharrezkoa dela iruditzen zait, ez duintasuna emateagatik, hitz potoloegia delako hori, baina bai kazetaritza aldetik ere. Nik jakin nahi dut egiten dudana jendeak jasotzen duela, ordaintzen duela, interesatzen zaiolako. Doan banatzen baldin badut, ez dakit zein den erreferentzia.

Muxika: Galdetu egin behar da. Azterketa soziologiko bat egin, eta jakin irakurtzen den ala ez.

Maiz: Euskarazko edozein enpresa komunikatzaileentzat ere azken helburuak izan behar du sortzen duen produktu hori, ez euskaraz delako saltzea, baizik daukan edukiagatik saltzea. Zergatik erosten da euskarazko prentsa? Euskaraz delako, militantziagatik? Proporzio handi

batean bai. Hori gainditu beharra dago, bestela, oso-oso laburrerako bizia daukagu. Euskaraz delako bakarrik jasota horrek ez dauka etorkizunik. Euskara komunikatzeko baliabide bat, bide bat izan behar da, esan beharrik ez ezinbestekoa eta erabili beharrekoa. Baina edukiak erakarri behar du jendea.

Muñoa: Hala ere arriskutsua ikusten dut publizitatean bakarrik oinarritutakoa baldin bada. Herri prentsarik kanpo, orain dela 4-5 urte, 'Metro' eta doako egunkariak hasi zirenean, publizitatean bakarrik oinarrituta, bazirudien momentu horretan, etorkizuna hortik zihoala. Bat-batean krisi ekonomikoa badator eta erdiak desagertu dira, publizitate eredu horretan bakarrik oinarritzen zirelako. Jendeak ikusi du, eredu horrekin bakarrik ezin dela aritu. Nik uste dut, krisi egoeran gutxiago jaitsi daitekeela eremu lokalean, tokiko eremu horretan, prezioak txikiagoak direlako eta zure publikoarengana iristen zarelako.

Euskarazko edozein enpresa komunikatzaileentzat ere azken helburuak izan behar du sortzen duen produktu hori ez euskaraz delako saltzea, baizik daukan edukiagatik saltzea. AIMAR MAIZ



Gabonetako arropak neurrira edo aurretik eginak
(tokilak, abarkak, txapelak...)



Oriamendi, 19
BEASAIN

Jostunlanetarako osagarriak

Tel.: 943 16 23 84
udete@euskalnet.net

Goierritarraren eta Hitzaren urteurrena dela eta

Material berria salgai



Gizonezko nahiz emakumezkoentzako 'wind stopper' txamarra beltzak.
Harpidedunentzat: 50 euro
Harpidedun ez direnentzat: 60 euro.



Kirola egiteko kamiseta, beltza eta grisa, gizonezko nahiz emakumezkoentzako.
Harpidedunentzat: 18 euro
Harpidedun ez direnentzat: 23 euro.



Poltsak, handiak, beltzak edo kakiak.
Harpidedunentzat: 19 euro
Harpidedun ez direnentzat: 24 euro.

Oparia!



Erosle guztiei, urteurreneko motxilatxo oparituko zaie.

Goierritarraren eta Hitzaren urteurrenaren aitzakian, material berria salgai dago dagoeneko, Beasaingo bulegoan. Urriaren 31n, Lazkaoko jaialdian salgai egongo da eta azarotik aurrera, ohiko salmenta puntuetan erosteko aukera izango da.



MARGOGAI

- ✓ Pinturak
- ✓ Tresnak
- ✓ Dekorazioa Industriala
- ✓ Makineria




Tel./faxa: 943 88 65 63
Oriamendi, 32

BEASAIN

Tel./faxa: 943 88 22 93
Laskaibar 1-1

G+ hoguei ta bost zatoz gurekin ospatzera



30 Ostirala Bertso saioa Legazpin

22:00etan
Latxartegi aretoan

Bertsolariak:

Iñaki Murua
Aitzol Barandiaran
Iker Zubeldia
Aitor Sarriegi

Gai jartzailea:
Joseba Barandiaran

Sarrera 5€



31 Larunbata Jaia Lazkaon

16:00-18:00 umeentzako festa:
Puzgarriak, tailerrak...
TAKOLO pailazoaren emanaldia

18:00etan, herri kirol norgehiagoka:
Idiazabal
Zaldibia
Beasain
Zumarraga-Urretxu

19:00etan, Taloak, sagardoa eta trikitixa

21:00etan, **HERRI AFARIA**
Helduentzat menua 20€, haurrentzat menua 5€.
Afarirako txartelak ohiko lekuetan salgai.

23:00etan: **BIZI!** diskan parte hartu duten
bertsolari eta trikitilarien kontzertua



Lazkaoko Udalaren
laguntzarekin

Lazkaoko jaialdiko sarrera doan.

Afariko txartelak salgai:

ALTZAGA: Olagi
ARAMA: Ostatua
ATAUN: Troskaeta
BEASAIN: Hitzaren bulegoa
GABIRIA: Ostatua
IDIAZABAL: Odei
ITSASONDO: Kaxintane
LAZKAO: Alboka, Giroa, Zelata
eta Gerriko liburudenda
LEGORRETA: Olaso
LEGAZPI: Katilu
OLABERRIA: Zezilioenea
ORMAIZTEGI: Usoa
ORDIZIA: Mujika liburudenda
SEGURA: Elorripe
URRETXU: Hitzaren bulegoa
ZALDIBIA: Kultur Etxea
ZEGAMA: Txanton
ZERAIN: Ostatua

Zorionak Goierritarra!

moda eta osagarriak

Ness

Tel 943 16 10 25 ORDIZIA

Goierriko trikitilarien eta bertsolarien cd-a salgai dago

Salmenta puntuak

Altzaga: Olagi sagardotegia eta Altzagarateko taberna.

Arama: Toki Alai taberna.

Ataun: Troskaeta eta Sutegi tabernak, eta Urbitarte sagardotegia.

Beasain: Basakana eta Antzizar tabernak, Mirentxu liburudenda eta Hitza-Goierritarraren bulegoa.

Ezkio-ltsaso: Ezkioko Argindegi ostua eta ltsasoko Ostua.

Gabiria: Ostua eta Aztiri erretegia.

Gaintza: Oteñe erretegia.

Idiazabal: Mujika jatetxea, eta Odei eta Xume tabernak

ltsasondo: Kaxintane taberna.

Lazkao: Gerriko liburudenda, Zelata taberna eta Gasolindegiko taberna.

Legazpi: Katilu eta Kukue tabernak.

Legorreta: Jubilatuen taberna eta Olaso taberna.

Mutiloa: Ostua.

Olaberria: Zezilionea jatetxea.

Ordizia: Mujika liburudenda, eta Aldasoro, Etxaniz eta Pottoka tabernak.

Ormaiztegi: Arana, Arantza eta Usoa tabernak.

Segura: Elorripe taberna eta Imaz jatetxea.

Urretxu: Hitzaren bulegoa eta Krak taberna.

Zaldibia: Illati taberna eta Kultur Etxea.

Zegama: Itzala eta Txanon tabernak.

Zerain: Ostua.

Zumarraga: Iburreta taberna.



Aurkezpena Lazkaon

GOIERRITARRAREN eta HITZAREN urteurreneko ekitaldi nagusia, urriaren 31n, Lazkaon izango da. Tartean, 'BiZi' diskoaren aurkezpena ere egingo da. Bertan parte hartu duten hainbat bikote Lazkaon izango da, herri afaria bukatutakoan.

Jarraian dituzue, 'BiZi' diskoaren parte hartu duten artisten xehetasunak eta iritziak. Lerro hauetatik, GOIERRITARRAK eta HITZAK, eskerrik beroenak eman nahi dizkie, era batera edo bestera, proiektuan parte hartu duten guztiei.

GOISYSTEM
Applikazio informatikoak

- ✗ Ordenadore salmenta
- ✗ Konponketa
- ✗ Informatika ikastaroak
- ✗ Etxeko zerbitzu teknikoak

☎ 943 88 79 14 ☎ 943 16 04 01
Joan Iturralde, 1 BEASAIN
goisystem@goisystem.com

BORDABERRI
GALDARAGINTZA, S.L.

Galdaragintza fina planoetan edo ereduatan oinarrituta

Zorionak Goierritarra eta Hitza!

Salbatore auzoa, 8. industrigunea • BEASAIN
Tel./Faxa: 943 88 89 20

GOIERRITARRA aldizkariaren 20. urteurrenaren eta GOIERRIKO HITZAREN 5. urteurrenaren aitzakian, Goierriko trikitilarien eta bertsolarien uzta kaleratu da. 16 kantuk osatzen dute 'BiZi' diskoa. Goierriko herri guztietan, salgai dago. 26. orrian duzue salmenta puntuen zerrenda. HITZA eta GOIERRITARRAKO harpideek, 10 eurotan erosteko aukera daukate. Harpide ez direnek, 12 euro ordaindu beharko dituzte.

Arkaitz Apalategi HITZAKO

kazetaria aritu da proiektua koordinatzen. Telefono deiak, bilerak... "Ez da lan erraza, denera berrogei lagunetik gora aritu baitira, era batera edo bestera, proiektuan parte hartzen", dio ataundarrak.

Nafarroako Azkarate herriko Katarain estudioan egin da diskoaren grabazioa, ekainan eta uztailan. Hamahiru bikote eta talde pasa dira bertatik. Gazteak gehienak, baina beteranoogak ere bai. Trikitilari bikoteekin batera eskualdeko bertso-

lariak ere parte hartuko dute diskoan, batzuk kantuei hitzak eginez eta besteek kantuei ahotsa jarritz.

Plazetan eskarmentu handikoak izanagatik, protagonista gehienek, lehengo aldia zuten estudioko lanean. Lehenengo urduritasunak gainditu eta lan txukuna egin dute guztiek ere. Bakoitzak kanta bana grabatuko du. Denetarik piezak eta estiloak joko dituzte, Goierri egiten den trikitiaren erakusgarri. Gaiak ere askotarikoak izan-

go dira, beti ere oinarri moduan euskara eta Goierriko eskualdea hartuta. Erromeria eta festa giroa islatu nahi du BiZi! diskoak.

Diskoan parte hartu duten bikoteekin batera, goierritar jatorria duten edo Goierri bizi diren trikitilariak ere bildu dituzte; hala, Izaro Garmendia eta Eleuterio Jauregi Beloki zaldibiarrek, Lazkaon bizi den Alaitz Telletxearekin batera, disko-rako propio egindako kantu bat grabatu dute.

Xapre eta Furriela 'Atzotik gaurra'

Hitzak: Mikel Mendizabal, Iker Zubeldia eta Altzo Txiki.

'Goierriko festak'

Hitzak: Euxebio Igartzabal eta Xabier Zeberio.

'Ekuadortik Goierriara'

Zaldibiako trikitilari beteranoak ere Azkarateko estudioan izan dira, fin-fin. Ez dira bakarrik izan eta Goierriko hainbat bertsolarik hitza eta ahotsa jarri diete kantuei. 'Atzotik gaurra' abestian, Mikel Mendizabal, Iker Zubeldia eta Altzo Txiki parte hartu dute. Goierriko festei errepasoa, Euxebio Igartzabalek eta Xabier Zeberio eman diete, 'Goierriko festak' kantuan. Guztiak ere ondo moldatu dira estudioan eta emaitza polita utzi dute.



Dani eta Peio, 'Goierritar denon hitza'.

Hitzak: Iban eta Peio Urdangarin.

Dani Oiarbide idiaza-baldarrak eta Peio Urdangarin ataundarrak osatutako bikotea izan zen estudioan sartzen aurrena. Biek ere aurreneko aldia zuten



estudioko grabazioan, eta esperientzia polita bizi izan dutela adierazi due. "Diferentea da. Kalean jotzetik ezberdina baina esperientzia aberasgarria", dio bikoteak.

Fandangoa grabatu dute, Iban eta Peio Urdangarin letekin osatuta. "Disko honen ideia sortzen bada Hitzaren eta Goierritarraren urteurrena delako, ba horren bueltan sortutako kanta da. Fandango horri Peioren anaiak, Iban Urdangarinek jarri zion letra, gai horren bueltan".

DORRONSORO HORTZ-KLINIKA

- ✕ Odontologia orokorra
- ✕ Haur ortodontzia
- ✕ Helduen ortodontzia
- ✕ Implantologia

T. 943 160 991
Zaldizurreta, 9
BEASAIN

M^a Soledad Dorronsoro Murua
Mediku Odontologoa Elk. zkia.: 497

Ana Isabel Dorronsoro Murua
Mediku Odontologoa Elk. zkia.: 546

Lierni Garmendia Elola
Mediku Odontologoa Elk. zkia.: 783

Ederne Amundarain Aierbe
Mediku Odontologoa Elk. zkia.: 806

Garbiñe Aizpuru dietista - nutrizionista

Dietetika eta Elikadura Aholkularitza

Betiko helbidean:

Nagusia, 40
BEASAIN

tel.: 636 218 240

garbi.aizpuru@gmail.com

Maitane eta Aiora, 'Ihesean'

Hitzak: Aitzol Barandiaran

Maitane Aierza asteasuarrak eta Aiora Urdangarin ataundarrak, Laket taldea osatzen dute, Zigor Sagarna baxuarekin eta Iñigo Muñoz perkusio jolearekin batera. Aitzol Barandiaran ataundarrak jarri dio hitza abestiari. "Gai librea utzi genion Aitzoli eta gaur egungo errealitate gordina azaltzen du, bai krisia edota orain hainbeste mobilizazio sortzen ari den AHTri ere aipamen bat egiten zaio", dio bikoteak.

Aiora Urdangarin arduratu da guiroa jotzeaz eta ahots nagusiaz, eta Iñigo Muñozek hainbat perkusio tresna erabili ditu. Erritmo jostalariz betetako kanta da 'Ihesean'. Denboraz estu antzean baina esperientziarekin eta egindako lanarekin gustura gelditu dira haiek ere. Lehendik grabaketaren bat edo beste eginak dira, "baina behin ere ez gara egon horrelako estudio batean".



Dorronsoro eta Ezkerra, 'Iritsi baino lehen'

Hitzak: Aitor Sarriegi

Eneko Dorronsoro ataundarrak eta Seguran bizi den Andoni Ezkerra asteasuarrak, Aritz Ciden laguntza izan dute perkusioetan. Enekok soinua

eta gitarrak sartu ditu, eta Andonik, berriz, ahotsa. "Kalejira bat egiten hasi ginen, eta azkenean hauxe atera da. Zerbait freskoa egin nahi genuen", diote. Kanta ederra osatu dute, Aitor Sarriegi bertsolari beasaindarraren hitzekin. "Goierrin hemendik urte batzutura ikusiko denaren laburpena edo egiten du. Mendi buelta bat irudikatzen du letrak, eta hori ikusten ari garen gauzak. Ikusten dugu zer datorren, dagoeneko hasi direlako zulatzen". Haiek ere aurreneko aldia zuten estudioan, eta presaka aritu behar izan badute ere esperientziarekin gustura daudela diote.



Joseba Iparragirre eta Ander San Jose, 'Itsaso lehor'

Esperientzia handiko bikotea da honakoa: Joseba Iparragirre idiazabaldar trikitilaria eta Ander San Jose pandero-jotzaile lazkaotarra. Hasi aurretik Enekoren eta Andoniren grabazioa bertatik bertara ikusteko aukera izan dute. Soinua grabatzeko garaian hainbat saiakera egin dituzte, erabat konforme gelditu arte. Soinuari bigarren ahotsa ere sartu diote. Bere buruarekin zorrotza da Iparragirre. Arin-arin berezi bat grabatu dute, Josebak berak sortutakoa. Abilezia handia eta bere estilo propioa ditu, eta horrek egiten du ezberdin bere lana.

Olarte anaiak, 'Kalejira'

Zumarragako Olarte anaiek ere, Asierrek eta Iñakik, aurreneko aldia zuten estudioan, nahiz eta Arrate Irratirako grabazio batzuk eginak diren lehenago. Herriz herri urte askoan ibilitako biko-

tea da, eta eurek moldatutako kalejira bat grabatu dute. "Kalejira bat grabatu dugu, neuk moldatutakoa. Berria egiten ahalegindu gara, eta nahiko sinplea da baina entzuteko polita, belarrarian ondo sartzen da", dio Asierrek.

Hasieran nerbio puntuarekin azaldu badira ere, biak batera jotzen hasi direnean "nahikoa lasai" aritu dira. Ez dute ahalegin handirik behar izan eta hirugarren saiorako konforme gelditu dira egindako lanarekin. "Guk ez dakigu hau baino hobeto jotzen", zioten umorez. Haiek ere "esperientzia polita" izan dela diote.



ORMAIZTEGIKO UDALA

Ormaiztegiko Udala
euskararen
alde

Tel.: 943 88 26 60 - Faxe: 943 88 92 12

Edurne eta Oihana, 'Hitzak 5 urte'**Hitzak:** Urretxu-Zumarragako bertso eskola

Urretxuko Edurne Iturbek eta Oihana Irastorzak trikitixa bat grabatu dute, "berria baina tradizionala, betiko trikiti estilokoa eta dantzarako egokia", dio Edurnek. Kantuaren hitzak Urretxu-Zumarragako Bertso Eskolako ikasleen artean egin dituzte. Txapelketa askotan jardundakoak dira baina estudioan euren kanta bat grabatzen zuten aurrenekoa aldia zen. Aurrena soinuaren eta panderoaren txanda izan da. Urduri hasi arren berehala hartu diote eskua, eta laster gelditu dira konforme grabatutakoarekin. "Azkenean denbora joan egin zaigu, batez ere abestiarekin, bi ahotsetara grabatu nahi genuelako, eta ondo lotu eta enpastatzeak lan pixka bat eman digu baina azkenean lortu dugu. Eta nik uste dut oso ondo gelditu dela, esperientzia berria izan da eta gu behintzat oso gustora aterata gara".

**Elustondo anai-arrebak, 'Ontzi hutsak'****Hitzak:** Nerea Elustondo

Festa eta erromerietan Agurtzane eta Jon aritzen badira ere, proiektu honetarako Nerea arre-baren laguntza izan dute, bai hitzak egiterako garaian eta baita ahotsa jartzeko ere. "Trikiti munduan errepertorioa nahiko mugatu izaten da eta askotan izaten da joera bat kantu ezagunak errepikatzeak. Guk hain ezaguna ez den kantu herrikoi bat hartu genuen, Euskal Herrian hain ezaguna ez dena. Hori izan zen kanta aukeratzeko irizpidea", dio Nereak. Grabazioetarako Gurutz Bikuña gitarra jotzailea eta Xabier Azkarate perkusio jotzailea gonbidatu dituzte. Estudioan egonak ziren, baina beste ukitu bat eman eta talde lanean osatu dute pieza. "Arazo batzuk izan genituen letristarekin, hau neska lanpetua baita. Ez genekien kantu horri heltzerik izango genion ala fandango bat edo arin-arin bat grabatu beharko genuen. Baina halako batean letra iritsi zen eta Agurtzanek doinua pixka bat moldatu zuen, eta aurreko asteen bi artista hauengana (Gurutz eta Xabier) jo genuen, eta espero dugu hauenak dezente tapatuko zuela gurea", dio Jonek barrez.

**Gari eta Iñaki, 'Goierriko ditxa'****Hitzak:** Iker Zubeldia eta Iban Urdangarin

Goierriko makina bat herritako festa, poteo eta afariak alaitu dituzte Zumarraga-Urretxuko Garik eta Iñakik. Askotan Iker Zubeldia eta Iban Urdangarin bertsolariak izaten dituzte lagun, eta disko honetarako ere laurak batera aritu dira, batzuek hitzak egiten, eta kantua moldatzen besteak. Umore ukituarekin, Goierriko herrietako kontuak errepasatu dituzte. Grabaziorako Aitor Aiastui dultzaina jotzailearen laguntza ere izan dute.




Kantuari honela deskribatu digu Garik: "lehenago ateratako parte batzuk neuzkan, aitonaren eta trikitixa estilotik segitu nahi nuen pixka bat. Gero kantua, jota moduan edo nahasketa bat egin genuen, polita iruditu zitzaigun eta horrelaxo gelditu da. Gero gainontzeko parteak ateratzen joan dira; dultzainarekin ere zati bat sartu du Aitor Aiastuik", dio Garik.

Estudioan gustora aritu dira Iker Zubeldia eta Iban Urdangarin bertsolariak ere. "Polita izan da, uste baino hobeto joan da", dio Zubeldiak. "Hasieran arraro samar egiten da baina hirugarren kanturako normal entzuten da norbere aho-tsa", gaineratu du Urdangarinek.

**Trikizio, 'Pelaez'**

Fredy Pelaezen laguntza izan dute Xabi Arakamak eta Trikizio taldeak. Grabatzeko modua berezia izan da eta ikutu bereziko trikiti doinua ateratzea. Talde osoak (soinu, gitarra, kontrabaju eta bateria) denak batera grabatu dute. Trikiti doinuak jazz ukituarekin eta inprobisazioa uztartzen dituen lana da.



osagarriak

ilearentzako
tratamendu
bereziak

Urdaneta, 15
ORDIZIA
Tel. 943 88 82 52

jos-bel

ile - a p a i n d e g i a

Lutxurdio eta Aitziber, 'Epelatxo'

Jazz girotik, trikitu doinu tradizionalera. Lutxurdio eta Aitziber bikoteak 'Epelatxo' kanta grabatu dute. "Gu gehienbat erromeria giroan ibiltzen gara eta erromeria giroko pieza bat grabatu nahi izan dugu. Gelatxo zenaren omenez, Tomas Epelderi ikasitakoa", dio Lutxurdiok. Molde zaharreko fandangoa grabatzeko historia handiko soinu bat ekarri du Lutxurdiok estudiora, Laja soinu-joleak trikiti txapelketan erabilitako Paolo Soprani soinua. Aitziberren panderoarekin batera kriskitinak ere sartu dituzte. Horretarako F. Javier Telletxea Patxiku nafarraren laguntza izan dute.

Gustura gelditu dira emaitzarekin. "Esperientzia berriak probatu egin behar izaten dira, eta ba, errepikatzeko modukoa izan da. Gustura gelditu gara. Gainera sekula kriskitinekin jo gabe geunden, eta gauza berria izan da", diote.



Josune eta Aitziber Otegi, 'Aralartik Aizkorri'

Hitzak: Euxebio Igartzabal

Aspalditxoan plazak utzi samar badituzte ere, beasaindar ahizpak parte hartu nahi izan dute Goierriko trikitriaren isla den diskoan. "Pieza, txapelketa baterako prestatu genuena da, herrikoia. Eta hitzak Igartzabalek egin dizkigu", diote. Euxebio Igartzabal bertsolariak, Aralar eta Aizkorriko paisaietan barrena egindako ibilaldi moduko bat irudikatu du.

Elortza anaiak, 'Larrosa beltza'

Hitzak: Iban Urdangarin

Urretxuar anaiak, makina bat herri eta plazatan aritutako bikotea da. Kalejira bat grabatu dute. "Pieza, Xabi Arakamarekin batera, Amerikako Estatu Batuetara egindako bidaia batean ateranuen, gutxi dauzkate aterata eta hau da horietako bat", dio Joxe Agustinek.

Kantuaren letra, Iban Urdangarin ataundarrak egin du. "Euskarari buruz eta Euskal Herrian gaur egun bizi dugun egoerari buruz egiteko eskatu genion, eta hortik aurrera bere esku utzi genuen. Bi bertso atera zituen, gaur egun daukagun PSOEko eta PPEko gobernuari buruzkoak, eta hor esaten da euskara indartzeko gobernu pattala daukagula".

Elorzatarrek ez zuten esperientziarik grabazio kontuetan. "Lehenengo aldia zen eta hasieran nerbio pixka bat bage-nuen baina ondo grabatu dugu, nahiko azkar eta gustura gelditu gara", diote.



Izaro, Alaitz eta Beloki, 'Zaindu gure euskerea'

Hitzak: Iñaki Murua eta Beloki

Hirukote berezia da honakoa. Hitzak eta Goierritarrak, 'BiZi' proiekturako, hiru lagun ezagun batu ditu: Izaro Garmendia eta Eleuterio Jauregi 'Beloki' zaldibiarrek, eta Lazkaon bzii den Alaitz Telletxea oiartzuarra. Hiruren artean kalejira doinu bat osatu dute, bizia eta alaia. Kantari hitzak, Iñaki Murua bertsolariaren eta Belokiren artean jarri dizkiote. Izaro Garmendiak jo du soinua, eta Alaitzek eta Belokik ahotsa jarri diote doinuari. Belokik panderoa eta hainbat perkusio instrumentu ere sartu ditu.

HITZAROK 15 URTE

norantza bera norabide berriak

IZAN EUSKALDUN!

EGIN ZAITEZ BAZKIDE!

GOIERRI

ORDIZIA

15 urte
H
 1994-2009

Egutera bidea, 5 • 20240 ORDIZIA

Tel. 943 16 23 66

e-posta: hitzaro@gmail.com



OREKA

GESTION URBANA



Etxebizitzak eta unifamiliarrak kostuko prezioan,
tartekaririk eta promotorearen irabazirik gabe.

Etxebizitza kooperatibak; etxebizitzaren eta
unifamiliarren promozio ireki eta eskuragarriak
Goierriko eskualdean.

Etxebizitza sustapenen kudeaketa, **etxe zaharren**
ordezkapena eta **partzelen garapena**.

Babes ofizialeko etxebizitzaren sustapena.

BIDERAGARRITASUN AZTERKETAK KOSTURIK GABE

OREKA  GESTION URBANA

Garagartza Enparantza 9, be 20.240 Ordizia
Tel. 943 086 662 — 608 537 059
Email: oreka@oreka.me



www.oreka.me



**GOIERRITARRAREN
ETA HITZAREN BIDETIK,
EUSKARA BULTZATU
ETA INDARTU NAHIRIK**



IDIAZABALGO UDALA

Plaza Nagusia, 1 - 20213
☎ 943-18 71 00 • Faxa: 943-18 71 43
www.idiazabal.info - udala@idiazabal.info

20 urte hauetan...

Goierritarra aldizkariarekin hazi eta bizi

Azken 20 urteotako Goierriko historia-
ren lekuko izan da Goierritarra aldiz-
karia. 369 zenbaki dira horren isla.
Euskara hutsezko informazioa zabal-
duz, Goierri egiten bere aletxo jarri du
Goierritarra aldizkariak. Goierritar ugarik beraien
lekukotzak utzi ditu Goierritarran. Goierritar asko,
hazten eta heltzen ikusi dugu. Horren lekuko da
hurrengo orrialdeko Aitor Txiki Begiristain.
Futbolari ohiari, Barcelona taldera joan berritan
egindako elkarrizketa da honakoa. Ligarik irabazi
gabe zegoen artean, harrezkero, garaipen ugari
lortutakoa da, futbolari zein kirol zuzendari beza-
la. Argazki bildumatxo bat ere egin dugu, 20 urte-
ko lekukotasun gisa.

ninos
ARROPA DENDA
Kale Nagusia, 20 • IDIAZABAL • Tel. 667 596 506
Astelehen goizetan zabalik, larunbat arratsaldeetan itxita

absorba • alfabet • ikks
jean bourget • bw • igor (katiuskak)

Udazken negua iritsi da

Aseguru korreduria

MUNDUATE

Elosegi, 1- behea
Tel.: **943 88 86 20**
Tel. mugikorra: **609 49 14 41**
Faxa: **943 88 91 18**
LAZKAO

SEGURUEN PROFESIONALAK

3. zenbakia. 90ko urtarrila-otsaila

Segurako lokaztitik Barcelonara,
baloiaren ziztu biziaz

Txiki Begiristain: “Oraindik ez dut Ligarik irabazi”

Txiki Begiristain, baloia besapean munduratutako olaberriatarra, triunfoaren ezitan murgildurik dabil, baina komentatu digunez futbol-talde gaizki ari denean jokatzen ikusten da benetan zein den ona eta zeinek ematen dien lasaitasuna jokalariei.

Umea zenetik futbolari emanda kristoren afizioz, Ordiziako frontoian ikasgelakoekin euren kisa futbol-torneoak antolatzen aritutakoa. Txikik dioenez orain ez bezala, garai hauetan ez bait omen dute hainbeste kirolarik egiten ume eta gazteek. Seguran hasten da federatu bezala 12-13 urterekin, hemen bi urte egin ondoren Olaberriara pasatzeko beste bi urtez. Saltoa Erreala Jubenilak fitxatzen duenean ematen da;

Erreala Jubenileko plantilakoa izanda Errealeko figurekin hasten da entrenatzen. 17 urterekin Sansetik ia pasagabe Erreal Nagusira katapultatua denon poza eta sorpresarako. Errealean 6 denboraldi egin ondoren Futbolaren Meketako bat den Barcelonan jokalaria. 25 urte dituen Errejonaleko Ataun taldearen zale hau, ezkerreko estremo betidanik, “beharko, ze Seguran kriston lokaztia egoten zen eta dexente xamarre-

ko toki bakarra hori izaten zen, ezkerreko kórnerreko banda”, eta hain aldakorraden Futbolaren “boltsan” altukotizatzen duena, Olaberriako gainean elkarriketatu dugu hain zuzen.

Ze inpresio sortzen dio 17-18 urtetako mutil bati hain goran ikusten zituen Errealeko jokalariekin batera aritzea, lehendabiziko denboraldietan errekanbio-pieza gisa baldin bada ere?

Izan zen erabat harrigarria, ez bait da batere normala, egia esan. Espainiako Mundiala pasa eta gero izan zen. Artean Erreala zegoen bi liga irabazita eta 6 jokalaria izanda Munduko Txapelketan. Orduntxe izan zen Errealaren booma. Errealekoa izan, eta gainera momentu haietan...!, nik ez nuen sinisten. Akordatzan naiz lehendabiziko entrenamenduan, Zubietan, ni kanpoan geratu

nintzela, ez nintzen sartzera atrebitzen Boronat etorri zitzaidan arte. Ez zaizu batere inporta errekanbio pieza bezala aritu beharra izatea eta partidu osoak ez jokatzea. Entrenadoreak ondotoxo asko daki zer egiten duen. Hor gorabehera asko gerta litezke, partidu txar bat egiten duzula eta peligerosoia izan daiteke moralaren aldetik. Ni nola Sansen ez nintzen izan ba oso ondo iruditu zitzaidan erroda-je hori egin izan beharra; gainera ni egundoko fenemonoa izan banintz partidu osoak jokatuko nituzkeen, baina orduan zegoen jendea oso ona zen, Lopez Ufarte, Satrustegi, Zamora, Bakero...

Hasi al zinen fetxa hauetan futbola profesio bezala ikusten?

Errealean sartzearekin nahikoa eta gehiegi zen. Jokatu behar duzula jakiteak beste guztia ahaztu erazten dizu, dirua..., gauza guztien gaine-

*Zorionak Hitza!
Zorionak Goierritarra!*



**inprimaketa-sistemen birziklaketa
inprimaketa-hondakinen kudeaketa
inkjet, laser/tonerra
zerbitzu teknikoak**

Andra Mari, 9 behea•20200 Beasain•197 Posta kutxa Tel.: 943 16 17 16 • 660 14 44 94 www.birzikla.net

tik Errealean jokatzeko eta segitzea nahi izaten da.

Estudiatzeari urte hartan utzi al zenion?

Urte hartan COU egin nuen. Gero bi aldiz egon naiz matrikulatuta Enpresarialetan baina ez dut ezer egin. Oso zaila da konpajinatzea, futbolak denbora asko kentzen dizu, ez entrenamenduetan baizik eta buruaren aldetik. Beti ari zara futbolaz pentsatzen eta futbolaz hitz egiten. Dena dela, aurreko berriro matrikulatu naiz, jada futbola beste era batera ikusten dut eta, baina orain roila da 7 urte ezer egin gabe pasa ondoren berriro burua estudiatzeko moldatzea.

Mantso-mantso, zure izena gero eta gehiago entzuten da. Luis Suarezren Sub-21 selekzioak geroa bihurtzen zara, Europako kopa konkistatzeko...

Min pixka bat ematen du sub-21 honetan partidu guztiak jokatzeko Errealean horrela gertatzen ez zen bitartean. Iristen da momento bat desatzen zarela noiz izango selekzioaren partidua: proiektio oso ona ematen du Estatu mailan, zutaz hitzegiten hasen dira, injekzio moduko bat da. Gero Toshack etorri zen eta lehendabiziko unetik hamaiken artean jarri ninduen, oso talde ona ginen, bloke konpakto bat osatzen genuen partidu eleganteak eginez.

Aldaketa handia al dago begiratzeko gero entrenamendu, disziplinari Errealetik Barcelonara?

Ez, dena entrenadoreen gauza da. Entrenadore bakoitzak nahikoa autonomia eta autoritatea du.

Eta instalazioekin? Barcelonakoa ikaragarria izango da ezta?

Nik ikusi dudana futbol-zelai politena Barcelonarena da. Inpresionantea da, eta oraindik gainera zabaldu nahi dute, jabetxeak, zinemak, pisuren bat gehiago... jarri nahi dituzte. Publikoari begira dena ahojontea, baina ez dauka Zubieta txiki bat: txikia, estua den zelai batetan entrenatzen dugu, lokatza pixkat dagoenean grabila gainean entrenatu beharra izaten dugu!, eta gauza bera infantelekin e.a., infrastruktura falta nabarmena!

Barcelonan lehendabiziko momentutik egiten zara titular, Errege kopa lortzen duzue...

Futboleko damakidan denbora guzti honetan, Barcelonan egindako lehendabizikoa izan da hoberena. 2 partidutan geratu naiz titular jokatu

Palmares paregabea

Aitor Begiristain Mujika (Olaberria, Gipuzkoa, 1964ko abuztuaren 12a), Txiki Begiristain izenez ezaguna, 1980ko eta 1990eko hamarkadetan aritutako euskal futbolaria da. 2003ko ekainaz geroztik, Bartzelona futbol taldeko zuzendari teknikoa da.

Taldeak

1982-1988: Real Sociedad
1988-1995: FC Barcelona
1995-1997: Real Club Deportivo de la Coruña
1997-1999: Urawa Red Diamonds

Palmaresa jokalaririk bezala

Espainiako lau Liga (1991, 1992, 1993, 1994)
Espainiako bi Errege Kopa (1987, 1990)
Espainiako bi Superkopa (1982, 1995)
Txapeladunen Liga bat (1992)
Europako Errekopa bat (1989)
Europako Superkopa bat (1989)

Palmaresa kirol zuzendari bezala

2003az geroztik Bartzelona Futbol Taldearen kirol zuzendaria da, garaipen ugari lortzen ari den taldearena:
Espainiako 3 Liga (2005, 2006, 2009)
Espainiako Errege Kopa bat (2009)
Espainiako hiru Superkopa (2005, 2006, 2009)
Txapeladunen bi Liga (2006, 2009)
Europako Superkopa bat (2009)

gabe. Halako talde batetan, jokalarien arteko konpetentzia hain handi honekin urte guztian jokatzeko izugarria izan zen.

Zeintzuk dira urte honetarako zure helburuak?

Italiako Mundialeko jokatu-ko duzula uste duzu?

Gure helburu nagusia Liga irabaztea da. 4 puntutara gaude Real Madriletik; etxean nahiko aise ari gara irabazten. Kanpoan arazo gehiagorekin



GOIERRIKO BERTSO ESKOLA

Argi Berri Elkarte
Gipuzkoa kalea 15
ORDIZIA
Tel.: 649 011 262



gabiltza. Ez da batere erraza izango. Madrila oso gaizki hasi zen eta guk ez genuen aprobetxatu, Madrilek berriro martxa ona hartu duelarik. Barcelona, jokatzen dituen konpetizio guztietan irabazte-
ra ateratzen da, Errekoopatik eliminatu gaituztenez... Italiako Mundialean selekzio-arekin jokatze-ko itxaropenak baditut. Aurreko urtean Suarezek beti deitzen zidan baina aurtun ez naiz oso ondo hasi eta Vilaroya, e.a. hasi dira jokatzen, gauzak ondo ari zaizkio ateratzen Suarezi eta igoal egongo da nirekin pixkat ahaztuta, baina beno asko geratzen da oraindik eta berak ezagutzen nau.

Kota altuagotara iristea espero duzu, Real Madriler, Italiara... ze aspirazio duzu?

Zaila da, Italiara joateko Europa mailako futbolari-
rik hoberenetakoa izan behar duzu. Geroz eta zailagoa da. Ni ez naiz jokatzen ari gero Italiara joateko, satisfakzio pertsonalaz baizik. Iaz oso ondo jokatu nuen baina 12 gol bakarrik sartu nituen, aurtun gehiago sartzea gustatuko litzaidake. Ez dago esaterik dena eginda dudarik, oraindik ez dut Ligarik irabazi, Mundiala ere hor dago, Eurokopa... beti dago zeozet nahiz eta Barcelonan geratu.

Zer moduz konpontzen zarete jokalarien artean Barcelonan?

Ez dago harreman gehiegirik, ez da Errealean bezala. Barcelonan zailagoa da ze bakoitzak izan ditu bere lagu-



nak, bere edukazioa, bere historiak... eta orduan errepa-
ro gehiago betire. Errespon-
tsabilitatea ere handiagoa da, asko dago jokuan. Taldeko euskaldunekin harreman erre-
xagoa dago dudarik gabe, komunikaziorako disposizio hobe-
a, ulergarria den bezala, baina honek ez du esan nahi isten garenik; dena den, giroa ona da, baina ez dira hementxo afariak, bazkariak...

**Ze asmo duzu zure futbola-
ri karreraren ondorenera-
ko?**

Pentsatzen dut oraindik beste 7 urte geratuko zaizkidala.

Hau nire 8. urtea da eta pix-
kanaka hasten zara zerbait prepa-
ratzen, inbertsioak e.a...., bukatzen denean zer-
bait edukitzeko.

**Ez duzu ikusten zure burua
entrenadore bezala?**

Puff!, bizimodua ona da baina tentsioagatik kaskatuta bukatzen dute, hiru urtez egoten dira, eta aurpegiz eta dena... futbolaz asko jakin behar duzu, psikologo izuga-
rria izan behar duzu, harre-
man publikoetarako ere, prentsako jendea ondo tratatu behar, entrenadoreen imagina prentsak egiten bait du.

Presio ikaragarri bat onartu beharrean dago. Presio hori ez dago Barcelonan soilik, edozein taldetan aurki dezakezu, emaitzen arabera taju-
tzen da.

**Zer gertatzen da
Barcelonan... "El Barça es
más que un club..."**

Barcelonak esannahi berezi bat dauka Catalunyan. Sozio asko daude futbolera joaten ez direnak. Politika sartzen da dantzan, zentralismoaren aurka. Garai batean Nou Campera katalaneraz hitzegi-
tera joaten ziren. Catalunya osoan hor bakarrik hitzegiten zen katalaneraz. Abestu ere katalaneraz...

Real Madrilekiko pikea hortik dator eta gaur eguneko gauza asko kontsekuentzi batzu baino ez dira.

**Zernolakoa da
Barcelonako prentsaren
aldetik izaten duzuen ako-
soa. Asko kostatu al zaizue
hortara moldatzea?**

Suerte ona izan nuen; partidu nahikoa onak egiten nituen eta prentsak kritika onak egin zizkidan; ez da batere zaila kritika txarrak izan eta gaizki pasatzea. Barcelonako pren-
tsarena izugarria da, egun guztia atzetik, entrenamendua bukatu eta 50 lagun gure gai-
nean hemengo edota hangoa-
gatik galdezka: prentsa, irra-
tia, telebista... Aurreko urtea nahikoa lasaia izan zen, ba hala ere beti zegoen zerbait... ez baldin badago sortu egiten da, konpetentzia izugarria dago beraien artean, asuntua saltzea da, gauzak beren one-
tik atera eta exajeratu.


FOTODEPILAZIOA - FOTOGAZTETZEA - FOTOAKNEA

AURPEGIRAKO ETA GORPUTZERAKO BIRSORTZE IRRATIFREKUENTZIAK

MIKROPIGMENTAZIOA - MAKILAJEA



JOSUNE
EDERGINTZA ZENTROA



Tel.: 943 882 888 E-posta: centrojosune@yahoo.es J.M. Barandiaran plaza, 3 ORDIZIA

Alde handia dago Barcelona-Errealeko afizioen artean?

Barcelonan ia denak eserlekuak dira. Sozioa nahikoa zaharra izaten da batzaz beste. Barcelonak ia munduko jokalaririk onenak izan ditu. Sozioa ohituta dago onena ikustera baino partidu batean. Sozioa partidu bat ikustera joaten da. Bizi egiten dute, baina ez da hemen bezala, hemen jendeak gehiago animatzen du. Exijentzi maila ere handiago dute. 5.000 milioitako aurrekontua, jokalaria onenak dituztela e.a., joaten dira partidua irabazi eta disfrutatzera.

Beasainen baduzu Peña bat, Peña Txiki Begiristain delakoa...

Beasainen asko ibiltzen nintzen, eta beno... niretzako sorpresa handi eta pozgarri bat izan zen; noizik behin ateratzen gara, afarixoren bat egiten dugu..., kasualitatea izan zen, urte hartan egin zen peña eta nik gero aldegin beharra, gero eta zailagoa egiten zait peñakoekin elkartzeara. Poza ez da bakarrik sortzearekin ematen, ni Barcelonan izanagatik ez da eten; hona etorri nintzen batean afari bat egin genuen, aurten Errealak han jokatzeko duenean joaten diren peñako guztiei sarrera

banatzen emango diet, ea joaten diren. Ikusten dut roiloa ez dela Errealarena soilik baizik eta baita ere nire pertsonarekiko afektuzko zerbait.

Futbol zelai eta gradetako biolentzia, Peñak... laguntzen ote diote benetan futbolari ala dena kakazten ari dira?

Hasiera batetan lortu zen Peñak zirela eta, futbolari gorakada bat ematea, jende gaztea inplikatzeara... nere ustez ez dugu ahaztu behar futbola kirola dela. Etxen partidu bat galtzea ez da hainbesterako eta ez dago beti zertan errudun bat bilatzen aritu beharrik. Jende hau, peñetakoak, ez dago batere kontrolatua, 100 gazte elkartuz gero, hori kontrolaezina da.

Kinielak, milioiak, publizitatea... hainbeste diru dantzan... zer deritzozu?

Futbolak dirua mogitzen du, eta jendeari gustatzen zaionez... ez dago kirolik futbolaren moduan probintzia bat ekipo batekin identifikatzen duenik.

Arbitroez zer diozu?

Arbitroen hanka sartzeak, akatsak...

Beti izango da horrelakorik. Nire ustez hotzagoak izan beharrean dago, arbitroak ere pertsonak dira, baina hobeto prestaturik ere egon daitezke, profesionalago izan, kontrolatu beren entrenamenduak... bideoak erabili, arbitroak elkartu eta ahalegindu erregimentu berritu eta hobetzen, arbitroren bat jarri kanpoan edo horrelako zerbait... eta ez bakarrik arbitroekin, bestelako ataletan ere badago zer astindu.

Euskal selekzioarena nola ikusten duzu, utopikoa?

Euskadiko Selekzioaren aitzakia beti izan da euskarari laguntzea. Ez dakit zenbat partidu behar diren UEFAk ofizialki onartzeko. Oraindik partidu batzu falta zaizkigu. Ez da posible Euskadiko selekzioa ikastolen kanpainen baitan uztea. Federazio hori espainolaren pean egongo litzateke bestela, baina ez dauka..., Euskal Selekzioan naparrak sartuko lirateke? Portugalen kontra

jokatu behar genuen partidua atzera bota beharra egon da, problemak sortu dira eta.

Zer iruditzen zaizkizu Atletikaren azken fitxajeak?

Ni ez nago pozik hori gertatzen delako, baina dirua da nagusi. Nahiz eta zuk jokalaria bati prezioa jarri, horrek ez du esan nahi partidu guztiak seguru irabaziko direnik, futbola ez da matematika.

Zer deritzozu Errealean estranjeroak sartzeari?

Niri ez zait gehiegi gustatzen. Hemengo roiloa beti izanda hemengo jendea sortu eta hemengoekin gauzak lortzea. Denok dakigu horrela zailagoa izango dela titulua eta lortzea, baina zerbait lortuz gero, UEFAn sartzea adibidez, jendea nahikoa harro sentitzen da, eta proportzioan Barcelona Europako Txapelketan jokatzeara adina bada. Estranjeroekin, harrotasun hori ez da berdina izango, jendea pozik egon arren.

Kanteraz, zer?

Europako roilo horrekin 1992.ean dena libre egongo da. Nahi badugu, batetik, etxekoak eduki, eta bestetik, etxekoak Belgika, Italiara joatea, ondo prestatu behar ditugu.

Txmari Garmendia

Aitor Larrañaga

Lokatza pixkat dagoenean grabila gainean entrenatu beharra izaten dugu!




Promozioak, Eraikuntzak, Erreformak...

943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA



www.goierribus.com

Tel.: 943 72 52 50 • Faxa: 943 72 58 70 • URRETXU



ZUMARRAGA *Gure herria*



ARGAZKILARIA: CARLOS MEDIAVILLA



Nopal Diet S.L.-k USA-tik inportatua. Tel.: 943 652 511

Ahaztu digestio txarrak, probatu **NOPALINA**.

Idorreriaren aurkako produktuak probatzeaz nekatuta bazaude, ez izan zalantzarik, probatu **NOPALINA**.

Sabel puztuaren sentazioak umorea aldarazten badizu, ez izan zalantzarik, probatu **NOPALINA**.

Zure digestio sistema erregularizatu nahi baduzu, egunero komunetik erabat hustu izanaren atseginarekin atera nahi baduzu, ez izan zalantzarik, probatu **NOPALINA**.

Probatu banetako **NOPALINA** eta aldea nabarituko duzu. Barrutik ondo gaudenean, nabari dugu eta ingurukoek ere nabari dute.

Kendu puztutasuna naturalki, probatu **NOPALINA %100 naturala**.

EDERKI NAGO GAUR!
NOPALINA NAGO GAUR!
NOPALINA OSASUNA DA! NOPALINA ERAGINKORRA DA!

Izaten ditugun gaixotasun asko gure organismoan pilatzen diren ezpurutasunen ondorio dira. **NOPALINA** gehigarri dietetiko erabat naturala da, barne garbiketa egiten laguntzen digu, osasunez eta bizkortasunez beteaz.


Bereziki ondorengo arazoen aurrean da lagungarria:

Idorreria
Likido erretentzioa
Kolesterolak gutxitzen du
Odol zirkulazioa hobetzen du


Bizkortasuna eta energia gehitu
Jateko irrika gutxitzen du
Haizeak
Garraztasuna

Hemorroideak
Zelulitiaz
Bihotzerrea
Eta abar...


www.nopalinaeuropa.com




Ikasleak irakasleari elkarrizketa: Joxe Martin Apalategik Joxemiel Barandiaran bitzak bildu zituen.



Luis Quilez margolari ordiziarra. Goierriko artistek beraien lanen berri aukera izan dute.



Harri Garmendia igerilari beasaindarra, punta-puntan ibili zen. Olinpiar jokoetan ere parte hartu zuen.




Josune Bereziartu. Gaur egun gailurrean dabilen goierritarraren lehenengo urratsen lekuko izan gara.




www.gaessa.com

Salbatore auzoa, Ittola industrigunea 5C pab.
BEASAIN
Tel.: 943 88 13 17



J.M. Iturrioz, 12 · BEASAIN · Tel.: 943 085 115

2010 denboraldia zure eskura
(txirrinduak, materiala...)



Joxe Ramon Agirre 'Marron'. Zazpi kontinentetako gailurrik altuenak igo dituen ataundarra.



Lutxi Zaldia emagin eta euskaltzale ordiziarra.



Mari Karmen Garmendia. Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua izan zen ormaiztegiarra.



Pako Aiestaran. Osasunako prestatzaile fisikoa zen garaian ezagutu genuen beasaindarra.

Argazki
Mirés
foto

www.fotomires.com

Tel.: 943 882525
Nafarroa etorbidea 53
BEASAIN

produktu pertsonalizatuak
album digitalak

nare estetika
zentroa
jose lasa 4, lazkao, t. 943 086 659

depilazioa

fotodepilazioa
(%40rainoko deskontua)

aurpegiko tratamenduak

etab...



zatoz eta ezagutu gaitzazu



Mikel Garmendia eta Joxe Ramon Soroiz. Antzokietan eta telebistan umorea zabaldu izan duten goiritarrak.



Juan Joxe Agirre. Euskal Herriko altxorretariko baten arduraduna: Lazkaoko beneditar liburuzaina.



Martin Ibarbia.



Juan Mari Jauregi. Gipuzkoako Gobernadore Zibil zena. Politika gaiak bildu ditugu, goierritarren ikuspegitik.

Zatoz Zientziaren aurpegi alaienaren bila!

gizarte ekintza
hezkuntza

www.miramon.org
943 01 24 78
DONOSTIA

zer nahi duzu bihar?

kutxa

Hitzak bost
Goierritarrak hoge
eta Jakintzak berrogei
euskaraz bizitzeko
gehi eta gehi

jakintza  kastola

Euskadi
2009

Zorionak

GOIERRITARRA eta HITZA



SASIETA
MANKOMUNITATEA

☎ 943 16 15 55
e-mail: info@sasieta.net
www.sasieta.net



urdaneta
oianguren

ordiziako **ikastetxe** publikoa

HAUR HEZKUNTZA
LEHEN HEZKUNTZA
DBH
BATXILERGOAK
HEZIKETA ZIKLOA

ZERBITZUAK
Jangela (bertako
sukaldaritza),
doako garraioa,
hartzaindegia.



URDANETA HI

Intxausti Plaza z/g
www.urdanetaikastetxea.org
012279aa@hezkuntza.net
Tlfnoa: 943 88 27 80
Faxa: 943805310

OIANGUREN BHI

Altamira Auzoa z/g
www.oianguren.net
012282aa@hezkuntza.net
Tlfnoa: 943 88 08 62
Faxa: 943164121



Orain **harpidedun egin** eta **Istanbulera** bidaia paregabea eskuratu dezakezu!



Laguntzailea:
over Urraki
Bidaienten adituak
Nagusia, 42 • Beasain

2 lagunentzat

Harpidedunak zuzenean sartuko dira zozketan

e z g a l d u a u k e r a

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.goierrikohitza.info

eraman/bidali zure datuak:

Urbialde plaza, 7 behea • 20200 Beasain
Labeaga, 12 • 20700 Urretxu

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

HITZA ☐ GOIERRITARRA ☐ biak ☐

- Izen-abizenak:

- NA:

- Lanbidea:

- Jaioteguna:

- Helbidea:

- Herria:

- P.K:

- Tel.:

- Posta elektronikoa:

- Kontu zenbakia:

[illegible]

Deiak eta datuak jasotzeko azken eguna: azaroak 10 / Saridunaren izena egunkarian: azaroak 17



ZORIONAK ETA URTE ASKOTARAKO!


Legazpiko udalerritik haize freskoa bidali nahi dizuegu,
datozen urteetan ere euskara zabaltzen jarrai dezazuen.

Segi horrelaxe!






*Luis Katarain Idiazabalgo artzaina.
Adinekoen jakinduria bildu eta zabalduz.*



Pedro Galparsoro Segurako saskigilea. Ogibide zabarrei buruzko testigantzen lekuko izan gara.



Xabier Imaz eta Patxi Etxeberria. Kirolari profesionala izateko egin beharreko lan ixilaren adibidea.



Xabier Mendiguren Elizegi eta Joxe Azurmendi. Goierriarren uzta zabala izan da 20 urteotan.

Goierri ezagutuz

Nola garatu gara eta nola garatu nahi dugu?

Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzendua!

Doan Goierriko ikastetxe guztientzat

Izen-emateak:
943 882 290
delikatuz@ordizia.org

delikatuz

Ordiziako Udala

GOIERRIKO INTERPRETazio ZENTROA - ELIKADURA ETA GASTRONOMIA GUNEA

Santa Maria kalea, 24 - Ordizia - 943 882 290 - delicatuz@ordizia.org - www.delikatuz.com

Otxoa d' Olaiza
the backstage

☎ 943 88 32 03
Zapatari kalea, 2A
BEASAIN



Goierriko bainbat alkate 90. hamarkadan.



Segurako baurrak 2001-02 ikasturtean.



Gabiriako eskolako haur eta irakasleak 1997an.



Ataungo Agautz trikitilari taldea.



*Ordiziako
betiko denda
berritu dugu*



Tel.: 943 885 466
Zelaeta, 1
BEASAIN

Tel.: 943 245 200
Emeterio Arrese, 7
TOLOSA



harria gresak

Interioristak

Bi hamarkada bereziki bainuen
berrikuntzari eta diseinuari emanak

Zikintzen ez diren manpara bereziak


Berrikuntzak direla eta Beasaingo dendan prezio bereziak: %50 arte



SALMENTA ZUZENA

Goierriko larre eta mendietan era tradizionalen
hazitako behien okela, benetako haragia.

www.larreko.com



Xerrak
Zankarra

Txuleta
Haragi txikitua

Sahieskia
Gisatzekoa
haragia

Zorro hauek hutsean ontziratuta daude, guztira
5Kg-ko pack bat osatzen dutelarik. Pack honek
edozein izozkailutan sartzeko moduko neurria du.

Bildotxa-Borda baserria
ALBERTO IRASTORZA

Errekalde auzoa
20212 Olaberria Gipuzkoa
T 943 160 681 M 620 868 605

bildotxa-borda@larreko.com

Igartate baserria
ANA ROSA IMAZ

San Gregorio auzoa
20211 Ataun Gipuzkoa
T 943 180 261 M 669 237 877

igartzate@larreko.com

Izar Berri baserria
GARIKOITZ NAZABAL

Urrieta kalea, 16
20247 Zaldibia Gipuzkoa
M 665 755 988

izarberri@larreko.com

FAKTORE



Idiazabalgo herri arteko txapelketako pilotariak, entrenatzailea eta pilota eskolako kideak. Arg.: Fotoetxe



Beasaingo saskibaloiko neska taldea.



Ataungo 'Gorritz peña'.



Zeraingo Gazte Asanbladako kideak.

ttipi - ttapa

umeen arropa denda



Negurako aukera zabala!

Santa Maria, 35 ORDIZIA tel.: 943 886 901

T
I
T
A
R
E

Joskintza ikastaroak:

puntua, gakorratza, gurutze puntua, bainiak...



J.M. Barandiaran plaza, 3-5 · **ORDIZIA**
Tel.: 943 88 74 82 · 620 93 65 54

puntu eta gakorratz laboreak

balio erantsia

publiadk-n etengabe egiten dugu lan mamia eta itxura batuz marka sendo eta iraunkorrek sortzeko, berez baliotsuak direnak, gurekin elkaria-nean dagoen enpresa bakoitzaren pertzepzio homogeneoa dela medio.

publiadk[®]
enpresa irudi globala

publiadk@publiadk.com

www.publiadk.com



The main image shows the exterior of the Barandiaran Zeramikak store at night. The building has a modern design with large glass windows and a prominent neon sign that reads "BARANDIARAN zeramikak" in blue. Below the main sign, there are smaller signs for "ERREF. MAK", "DISEINUAK", "PROIEKTUAK", "BAINUAK", and "HIDROMASAJ". The store is located on a street corner, and the interior is visible through the glass doors, showing various ceramic products and fixtures.

SEMPERE KALEA. 7, 1. LOKALA BEASAIN
TLFNO. 943 887972 - FAX 943 888657
e-mail : barandi@barandiaranzeramikak.com

Three smaller inset images show the interior of the store, displaying various ceramic products and fixtures, including a large tiled wall, a bathroom interior, and a kitchen area.

egitaraua

Enirio Aralar 600 urte



Maiatzak 1: Larraitz, larre-irekieraren eguna

Abuztuak 9: Igaratzako eguna

Urriaren 30etik otsailera: erakusketa herriz herri

Azaroak 14: adiskidetasun ekitaldia Ordizian;
600. urteurreneko ospakizuna Amezketan

Azaroak 22: mendi martxa

Azaroan: unitate didaktikoaren argitalpena

Abenduan: historia liburuen aurkezpena



enirio aralarko mankomunitatea



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa